



AKTA

Espediente-zk.:	Kide anitzeko organoa:
OSOKO BILKURA/2024/11	Udalbatza

BILKURAREN DATUAK	
Deialdi-mota	Ohikoa
Eguna	2024ko urriaren 28a
Iraupena	19:00etatik 20:04ra
Tokia	Osoko bilkuren aretoa
Udalburua	Javier Gorbeña García
Idazkaria	Ziortza Guinea Gutiérrez

BILKURARA BERTARATU DIRENAK		
NAN zk.	Izen-abizenak	Bilkuran izan da
18593219L	AINHOA FERNÁNDEZ DOMINGUEZ	BAI
22739258D	BEGOÑA GARCÍA LÓPEZ	BAI
18598103G	ELISABETH OCHOA DE ERIBE ROMÁN	BAI
72748486S	IÑIGO GRACIANTEPARALUCETA LÓPEZ DE IPIÑA	BAI
30641952H	JAVIER GORBEÑA GARCÍA	BAI
53980281V	MAIALEN BERGARA SÁEZ DE CÁMARA	BAI
72841412K	MAITE COBO BARCALA	BAI
72831885Q	MIKEL ISASMENDI TXURRUKA	BAI
72841383S	XABIER NAFARRATE CADIÑANOS	BAI

Udalburuak bilkurari hasiera eman dio, idazkariak egiaztatu ondoren organoa balioz eratu dela, eta eguneko aztergaiak aztertzeari ekin zaio.

A) EBAZPEN-ZATIA





Onestea aurreko bilkurako akta, 2024ko irailaren 20koa

Alkate jaunak galdetu du Udalbatzako kideren batek oharrrik egin nahi dion 2024ko irailaren 20ko bilkurako aktari. Akta hori deialdiarekin batera banatu zen.

Inork ez du oharrrik egin, eta, Toki Erakundeen Antolamenduari, Jardunbideari eta Araubide Juridikoari buruzko Araudia onesten duen azaroaren 28ko 2568/1986 Errege Dekretuak 91.1. artikuluan xedatutakoarekin bat etorritz, akta onetsi da.

485/2024 espedientea. Begoña García López zinegotzia karguaz jabetzea

Aldekoa

Bozketa-mota: ohikoa / aho batez

Udalak, 2024ko irailaren 20ko osoko bilkuraren ohiko bilkuran hartutako erabakiaren bidez, CARLOS ALBERTO ITURRIOZ MALAINA jaunak, arrazoi pertsonalak zirela eta, Udaleko zinegotzi karguari borondatez egindako uko egitearen berri hartzea erabaki zuen, Toki Erakundeen Antolaketa, Funtzionamendu eta Araubide Juridikoari buruzko Erregelamendua onesten duen azaroaren 28ko 2586/1986 Errege Dekretuaren 9.4 artikulua betetzeko.

ANA ORTIZ GONZÁLEZ andreak, udal hauteskunde-zerrendetako hurrengo izangaiak, Zigoitiko Udaleko EUSKO ALDERDI JELTZALEKO (EAJ-PNV) udal-taldeko zinegotzi-karguari uko egiteko eskaeraren berri ere hartu da. Udal idazkariaren aurrean zinpeko adierazpenaren bidez egin dio uko.

Udalak Hauteskunde Batzorde Zentralari eskatu zion 2023ko maiatzaren 28an egindako udal-hauteskundeetako zerrendan hurrengo zen BEGOÑA GARCÍA LÓPEZ andrearen egiaztagutunak bidaltzeko. Egiaztagutunak 2024ko irailaren 25ean jaso zituen Udalak.

Hori guztia kontuan hartuta, Udalbatzak ERABAKI DU:

Onestea BEGOÑA GARCÍA LÓPEZ andreak Udaleko zinegotzi karguaz jabetzea, CARLOS ALBERTO ITURRIOZ MALAINA jaunaren borondatezko uko egitearen ondoren hura ordeztzeko.

Eta horretarako, lege ezarritako prozedurari jarraikiz, alkateak BEGOÑA GARCÍA LÓPEZ andreak honako hau galdetu dio:

“Zin dagizue edo agintzen duzue, zuen kontzientzia eta ohorearen izenean, zintzo beteko dituzuela zinegotzi karguaren eginbeharrak, Erregearekiko leialtasunez, eta Konstituzioa bete eta betearaziko duzuela, Estatuko funtsezko araua den aldetik?”.
(Kargu edo funtzio publikoez jabetzeko formula arautzen duen apirilaren 5eko 707/1979 Errege Dekretuaren 1. artikulua).

BEGOÑA GARCÍA LÓPEZ andreak honako hau erantzun du: **legeak hala behartuta, bai, zin egiten dut.**

Zinegotzi karguaz jabetu ondoren, BEGOÑA GARCÍA LÓPEZ bilkurara elkartu da.

550/2024 espedientea. 2025erako ordenantza fiskalak aldatzeko irizpena

Alkate jaunak zerga batzuen karga-tasak aldatzeko proposamena aurkeztu du. Zehazki, ehuneko bosta areagotu nahi da orokorrean, azken urteetako gastu arruntan inflazioaren ondorioz diru-sarrera arruntak areagotu nahi direlako, Udalaren jasangarritasun finantzarioa bermatzeko.

	Foru araua	Egungo ordenantza	Aldaketaren
--	------------	-------------------	-------------





			proposamena
OHZ	Landakoa 0,3tik 1,10era Hirikoa 0,3tik 1,50era Ezaugarri bereziak 0,6tik 1,30era	Landakoa 0,335 Hirikoa 0,335 Ezaugarri bereziak 1,3	Landakoa 0,355 Hirikoa 0,355 Ezaugarri bereziak 1,3
JEZ	0,8 eta 2,2 arteko koefizientea Egoeraren koefizientea 0,5 eta 2 artean	Koefizientea: 1,53 Egoeraren koefizientea: 1	Koefizientea: 1,65
TMIZ	FAko tarifen igoera % 300 arte	% 112 inguruko igoera, tarifaren arabera	% 117 inguruko igoera, tarifaren arabera

Azaldu du zaborren tasa % 11,03 igoko dela, Gorbeialdeko Kuadrillak hala eskatuta, zerbitzuaren kostuak estali ahal izateko.

2024ko urriaren 21ean Informazio Batzordearen ohiko bilkuran eman zen irizpena.

Elisabeth Ochoa de Eribe Román zinegotziak azaldu du aurka bozkatuko duela PP alderdi politikoak herritarren zerga-kargak murrizten dituzten zerga-politiken aldeko apustua egiten duelako.

Ondoren EB BILDU udal-taldeak aurkeztutako zuzenketak transkribatu dira:

*"Gure proposamena da **OHZ, JEZ eta TMIZ**en zerga-ordenantzeta karga-tasa % 3,5ean igotzea; igoera apalagoa da, 0 eta gobernu-taldearen proposamenaren artean.*

***OHZ**ren ordenantzari dagokionez, zerga % 1,3ra igotzeko proposamenarekin ados gaude, % 50eko errekarua aplikatuta hutsik dauden etxebizitzetara. Honela idatzita agertzea proposatzen dugu:*

1. Subjektu pasiboaren edo hirugarren pertsonen –errentamendu edo erabileraren lagapen bidez– bizitegia ez diren bizitegi-erabilerako higiezinari zergaren kuota likidoaren % 50eko errekarua aplikatuko zaie.

2. Errekargu hori ondasun higiezinaren gaineko zergaren subjektu pasiboari exijituko zaie, eta urtero sortu eta likidatuko da, zerga honen kuotarekin batera.

Bizitegi-erabilerako higiezin bat okupatzailearen edo okupatzaileen bizitegia dela ulertuko da baldin eta ondasun higiezinaren gaineko zerga sortzen den egunean udal erroldan hala jasotzen bada.

Errekargu hau aplikatzeko, etxebizitzaren eranskinak hartuko dira kontuan, betiere horrekin batera erregistro-finka bakarria eratzen badute, eta egungo erabilera ez den beste erabilera edo jarduera baterako zuzenduta ez badaude.

3. Ondasun higiezinaren errekaruaren aplikaziotik salbuetsita egongo dira sortzapenaren datan egoera hauetakoren batean daudenak:

a. Administrazio publikoen eta bere erakunde instrumentalen jabetzakoak diren eta bizitegi-erabilerakoak diren ondasun higiezinak, alokairu eskuragarriko eskaintza publikoan jasota badaude, edo hirugarrenek administrazio eta organismo horiei lagatakoak badira, merkatu libreko etxebizitzaren alokairurako bitartekaritza-programa publikoak gauzatuz, hala nola Eusko Jaurlaritzaren Etxebizitza Hutsaren Programa.

b. Udal lizentzia duten eta ostalaritzako eta ostatuko jarduerari atxikita dauden etxebizitzak, baita erabilera turistikoko etxebizitzak eta gelak ere.

c. Modu jarraituan jarduera profesional edo komertzialetara bideratutako etxebizitzak, udal lizentzia badute.

d. Azken urtean hildako titularren ondasunak.

e. Erortzeko zorian adierazitako etxebizitzak.

f. Zergaren sortzapen-dataren aurreko urteko azarora eta abendua artean eskualdatu diren ondasunak.

g. Etxebizitza-erabilera duten eta errentamenduan eman diren higiezinak. Alokairuak bizitegi-erabilerarako izan beharko du, errentamendu-kontratua eskatuko da eta Foru Ogasunari horren kontu emango zaio. Alegatutako alokairuak gutxienez 9 hilabeteko iraupena izan beharko du errekarua aplikatzen ari den urteko aurreko ekitaldi fiskalean.

h. Ohiko etxebizitza ez izan arren urtean gutxienez 300 kWh-ko argi-kontsumoa edo pertsona bati 9 hilabetez bizitegi-erabileraren dagokion uraren kontsumo normala egiaztatzen duten etxebizitzak.

i. Fisikoki lotuta dauden arren, erregistroan bi finka gisa adierazten diren eta bi ordainagiri dituzten ondasun higiezinak. Ondasunen titularra pertsona bera izan behar da.

j. Jaraunspen bidez emandako etxebizitzak, titularra hiltzen denetik 2 urteko epean. Salbuespen hori aplikatzeko, jaraunspen-eskriturak edo beharrezko dokumentazioa aurkeztu beharko dira, hiri lurren balio gehikuntzaren gaineko zergaren aitortpena aurkezteko legean ezarritako epean.

k. Adinekoen egoitzetan erroldatutako pertsonen titulartasuneko etxebizitzak. Salbuespena soilik aplikatuko





zaio egoitzan sartu aurretik titularren ohiko etxebizitza zenari. Salbuespena urtebetekoa izango da egoitzan erroldatutako egunetik zenbatzen hasita.

l. Zerga sortzen den egunean zaharbertitzen ari diren higiezinak. Egoera hori egiaztatzeko udalaren obralizentzia aurkeztuko da.

m. Mendekotasuna duen senide bat zaintzeko haren etxebizitzan erroldatuta dauden pertsonen titulartasuneko etxebizitzak. Agiri bidez egiaztatu beharko da.

n. Egoera ahulean edo arriskuan dauden pertsonak zaintzen edo artatzen dituzten pertsonen titulartasuneko etxebizitzak, baldin eta titularrak justifikatzen badu ez dela etxebizitzan bizi. Agiri bidez egiaztatu beharko da.

EIOZari dagokionez, eguzki-energia edo beste energia berriztagarri batzuen aprobetxamendu termiko eta elektrikoa egiteko sistemak dituzten eraikuntza, instalazio eta obretan % 80ko hobaria ezartzeko aukera **aintzat hartzeko proposatzen dugu**. Hobaria ezartzeko, beroa ekoizteko instalazioetan administrazio eskudunaren homologazioa duten biltzaileak edo berogailu eta etxeko ur beroko (EUB) sistemak jarri behar dira. Sistema hauek eskumena duen administrazioak emandako dagokion homologazioa izan beharko dute, eta indarrean dagoen legediaren arabera nahitaezko inbertsioa ez duten kantitateei soilik aplikatuko zaie. Instalazioek homologatuta egon beharko dute, EEEK eta IDAEK instalazioei diruz laguntzeko eskatzen dituzten arau tekniko guztiak bete beharko dituzte eta enpresa homologatuek instalatu beharko dituzte.

Lurzoru industrialean dauden eraikuntza, instalazio eta obrek ezingo dute (salbuespen edo hobari) horren onura jaso.

(Salbuespen edo hobaria) eskatzeko honako agiri hauek aurkeztu beharko dira:

1. Idatzizko eskabidea, higiezina identifikatuta.
2. Ezarritako baldintza guztiak betetzen direla egiaztatzen duten jarduketa-proiektua eta agiri teknikoak.
3. Instalatzailer homologatuaren egiaztagiria.
4. Aprobetxamendu elektrikoko instalazioen kasuan, enpresa elektrikoarekin sinatutako kontratua eta instalatzailearen buletina aurkeztu beharko dira.

Alkate jaunak proposatu du adostea ondasun higiezinaren gaineko zerga, jarduera ekonomikoen gaineko zerga eta trakzio mekanikoko ibilgailuen gaineko zergaren tributuoak karga-tasa % 4 igotzea. Hala ere, esan du ez dagoela ados ondasun higiezinaren gaineko zergan etxebizitza hutsei jarritako errekarria gehitzearekin; izan ere, neurri hori aspaldi egon zen indarrean eta ez zen eraginkorra izan etxebizitzak merkatura ateratzeko. Gainera, aplikatzeko eta kudeatzeko zailtasunak eragin zituen.

EH BILDU udal-taldeko ordezkariak adierazi dute ez dutela zergen karga-tasaren goberna onetsiko ez bada ondasun higiezinaren gaineko zergan etxebizitza hutsei jarritako errekarria gehitzen; zuzenketa ondasun higiezinaren gaineko zerga, jarduera ekonomikoen gaineko zerga, trakzio mekanikoko ibilgailuen gaineko zerga eta eraikuntza, instalazio eta obren gaineko zergaren osoko zuzenketa da.

Alkate jaunak EH-BILDU udal-taldeak aurkeztutako aurrekontuaren zuzenketa osoa bozkatzeko eskatu du, eta emaitza honako hau izan da:

- **Aldeko botoak: 4 boto**, AINHOA FERNÁNDEZ DOMINGUEZ (EH BILDU), XABIER NAFARRATE CADIÑANOS (EH BILDU), MIKEL ISASMENDI TXURRUKA (EH BILDU) eta MAIALEN BERGARA SÁEZ DE CÁMARAREN (EH BILDU).
- **Aurkako botoak: 5 boto**, JAVIER GORBEÑA GARCÍA (EAJ- PNV), MAITE COBO BARCALA (EAJ- PNV), IÑIGO GRACIANTEPARALUCETA LOPEZ DE IPIÑA (EAJ- PNV), BEGOÑA GARCÍA LÓPEZ (EAJ- PNV) y ELISABETH OCHOA DE ERIBE ROMÁNEN (PP)
- **Abstentzioak: 0 boto**.

Alkate jaunak tasen eta prezio publikoen ordenantza fiskalari buruzko irizpena bozkatzeko eskatu du, eta boto hauekin onetsi da:

- **Aldeko botoak: 7 boto**, JAVIER GORBEÑA GARCÍA (EAJ- PNV), MAITE COBO BARCALA (EAJ- PNV), IÑIGO GRACIANTEPARALUCETA LOPEZ DE IPIÑA (EAJ- PNV), BEGOÑA GARCÍA LÓPEZ (EAJ- PNV), AINHOA FERNÁNDEZ DOMINGUEZ (EH BILDU), XABIER NAFARRATE CADIÑANOS (EH BILDU), MIKEL ISASMENDI TXURRUKA (EH BILDU) eta MAIALEN BERGARA SÁEZ DE





CÁMARARENak (EH BILDU).

- **Aurkako botoak: 1 boto**, ELISABETH OCHOA DE ERIBE ROMÁNena (PP).
- **Abstentzioak: 0 boto.**

Alkate jaunak jarduera ekonomikoen gaineko zergaren ordenantzari buruzko irizpena bozkatzeko eskatu du, eta boto hauekin onetsi gabe geratu da:

- **Aldeko botoak: 4 boto**, JAVIER GORBEÑA GARCÍA (EAJ- PNV), MAITE COBO BARCALA (EAJ- PNV), IÑIGO GRACIANTEPARALUCETA LOPEZ DE IPIÑA (EAJ- PNV), BEGOÑA GARCÍA LÓPEZenak (EAJ- PNV).
- **Aurkako botoak: 5 boto**, AINHOA FERNÁNDEZ DOMINGUEZ (EH BILDU), XABIER NAFARRATE CADIÑANOS (EH BILDU), MIKEL ISASMENDI TXURRUKA (EH BILDU), MAIALEN BERGARA SÁEZ DE CÁMARA (EH BILDU) eta ELISABETH OCHOA DE ERIBE ROMÁNena (PP).
- **Abstentzioak: 0 boto.**

Alkate jaunak ondasun higiezinaren gaineko zergaren ordenantzari buruzko irizpena bozkatzeko eskatu du, eta boto hauekin onetsi gabe geratu da:

- **Aldeko botoak: 4 boto**, JAVIER GORBEÑA GARCÍA (EAJ- PNV), MAITE COBO BARCALA (EAJ- PNV), IÑIGO GRACIANTEPARALUCETA LOPEZ DE IPIÑA (EAJ- PNV), BEGOÑA GARCÍA LÓPEZenak (EAJ- PNV).
- **Aurkako botoak: 5 boto**, AINHOA FERNÁNDEZ DOMINGUEZ (EH BILDU), XABIER NAFARRATE CADIÑANOS (EH BILDU), MIKEL ISASMENDI TXURRUKA (EH BILDU), MAIALEN BERGARA SÁEZ DE CÁMARA (EH BILDU) eta ELISABETH OCHOA DE ERIBE ROMÁNena (PP).
- **Abstentzioak: 0 boto.**

Alkate jaunak trakzio mekanikoko ibilgailuen gaineko zergaren ordenantzari buruzko irizpena bozkatzeko eskatu du, eta boto hauekin onetsi gabe geratu da:

- **Aldeko botoak: 4 boto**, JAVIER GORBEÑA GARCÍA (EAJ- PNV), MAITE COBO BARCALA (EAJ- PNV), IÑIGO GRACIANTEPARALUCETA LOPEZ DE IPIÑA (EAJ- PNV), BEGOÑA GARCÍA LÓPEZenak (EAJ- PNV).
- **Aurkako botoak: 5 boto**, AINHOA FERNÁNDEZ DOMINGUEZ (EH BILDU), XABIER NAFARRATE CADIÑANOS (EH BILDU), MIKEL ISASMENDI TXURRUKA (EH BILDU), MAIALEN BERGARA SÁEZ DE CÁMARA (EH BILDU) eta ELISABETH OCHOA DE ERIBE ROMÁNena (PP).
- **Abstentzioak: 0 boto.**

Adierazitako aurrekariak ikusita, Udalbatzak gehiengoz honako erabaki hau hartu du:

Aintzat hartu da 2025 ekitaldian tasak eta prezio publikoak arautzen dituen Ordenantza Fiskala aldatzeko proiektua.

Ikusi da 2024ko urriaren 15ean txosten juridikoa egin zela derrigorrezko legezko aholkularitzaren funtzioa betetz, eta egiaztatu zen proposatutako proiektua bideragarria eta legezkoa zela aplikatzekoa den araudiarekin bat.

Ikusi da 2024ko urriaren 15ean Kontu-hartzaitzak txostena egin zuela aldaketaren ekonomia- eta finantza-ondorioak ebaluatzeko, baita aplikatzekoa den araudia ere, zehazki, aurrekontu-egonkortasunerako eta finantza jasangarritasunerako printzipioak betetzen dituen aztertzeko.

Toki araubideko gaietan indarrean dauden lege-xedapenen testu bategina onartzen duen apirilaren 18ko 781/1986 Legegintzako Errege Dekretuaren 54. artikularekin bat eta Kontuetako, Osoko Bilkurako gaiak prestatzeko eta Gobernuaren kudeaketari buruzko informazioa emateko Informazio Batzorde Bereziaren aldeko irizpenaren arabera, osoko bilkurak, gehiengoz, honako **ERABAKI** hau hartu du:





LEHENENGOA.- Behin-behinean onestea tasa eta prezio publikoak arautzen dituen Ordenantza Fiskalaren aldaketa. Testua hitzez hitz eranskinean jaso da.

BIGARRENA.- Espedientea izapidetzea eta dagokion bezala jendaurrean ikusgai jartzea udaletxe honetako iragarki taulan eta Bizkaiko Aldizkari Ofizialean hogeita hamar egun balioduneko epean, interesdunek aztertu eta egokitzat jotzen dituzten erreklamazioak aurkez ditzaten. Halaber, interesdunen esku egongo da Udal honen egoitza elektronikoan (www.zigoitia.eus).

HIRUGARRENA.- Aintzat hartzea, arestian adierazitako epean espedienteari erreklamaziorik aurkeztu ezean, erabakia behin betikoa dela, Toki Ogasunak arautzen dituen Foru Arauaren testu bategina onesten duen Foru Gobernu Kontseiluaren irailaren 29ko 1/2021 Foru Dekretu Arauemailearen 19.3 artikuluaekin bat etorritz.

LAUGARRENA.- Alkate-udalburu jaunari eskumena ematea gai honekin lotura duten mota guztietako dokumentuak sinatzeko.

ERANSKINA

ZERBITZU PUBLIKOENGATIK ETA ADMINISTRAZIO JARDUERENGATIK ORDAINDU BEHARREKO TASAK ETA PREZIO PUBLIKOAK ARAUTZEN DITUEN ORDENANTZA

A. TASAK

I. Xedapen orokorrak

1. artikulua

Zigoitiko Udalak, Arabako Lurralde Historikoko Toki Ogasunak arautzen dituen Foru Arauaren testu bategina onartzen duen irailaren 29ko Foru Gobernu Kontseiluaren 1/2021 Foru Dekretu Arauemailearen 23. eta 46. artikuluetan, abenduaren 14ko Konstituzio Auzitegiaren 185/1995 epaian eta Estatuko eta Tokiko Tasen Lege Araubidea aldatzen duen eta Ondare Prestazio Publikoak Berrantolatzen dituen uztailaren 13ko 25/1998 Legean xedatutakoaren arabera, tasak ezarri eta eskatzen ditu eranskinean jasotzen diren zerbitzuak emateagatik eta jarduerak egiteagatik, ordenantza honen arabera, jarduera horien zati baitira.

2. artikulua

Ordenantza Zigoitiko udalerrri osoan ezarriko da.

II. Zergagaia

3. artikulua

Udalak, udal-eskumenekoa den zerbitzua edo administrazio-jarduera, bai hala eskatu zaiolako, bai gizabanakoek egindako zerbaitek edo egin gabe utzitako zerbaitek zeharka eragin duelako, benetan ematea edo egitea izango da zergagaia, subjektu pasiboari eragiten edo onurarik ekartzen dion neurrian.

Zerbitzuak emateagatik ordaindu beharreko tasak ezarrita ere, horrek ez du esan nahi zerbitzu hauek ezartzeak edo zabaltzeak sor litzakeen tasa bereziak ordaindu beharko ez direnik.

III. Subjektu pasiboa

4. artikulua

1.- Subjektu pasiboak edo zergak ordaintzen dituzten subjektuak pertsona fisiko eta juridikoak zein Arabako Zergei buruzko Foru Arau Orokorraren 35. artikulua aitpatzen dituen Entitateak dira, zerbitzuak edo jarduerak eskatzen dituztenean eta horien onuraz edo eraginaz gozaten dutenean.

2.- Hurrengoak zergadunaren ordezkioak izango dira:

a) Zerbitzuek edo jarduerak etxebizitzaren edo lokalen erabiltzaileei onura edo





eragina ekartzen badizkiete, horiengatik ordaindu beharreko tasetan, ondasun higiezin horien jabeak. Hauek, hala badagokio, dagozkien onuradunei ordainaraziko dizkiete.

b) Arriskua aseguratzen duten erakundeak edo elkarteak, ematen diren zerbitzuak hauek direnean: suteen kontrako neurriak har-tzea, suteak itzaltzea, aurri, eraikuntza eta eraisketen babeseko neurriak hartzea, salbamenduak eta oro har, pertsona eta ondasunak babestea eta, halaber, zerbitzua mantentzea.

c) Tasak lurrari eta hirigintza antolamenduari buruzko arategian xedatutako hirigintza-baimenak emateagatik ordaindu behar badira, edo kontrolezko administrazio-jardueretan, lizentziaren orde, erantzukizunpeko aitortpena edo aurretiatzko jakinarazpena eskatu behar diren kasuetan, eraikitzaileak eta obren kontratistak.

5. artikulua

Hurrengoek ordaindu beharko dituzte tasak:

a) Egindako zerbitzuak edo jarduerak gizabanakoek eskatu badituzte, eskatu duena.

b) Egindako zerbitzuak edo jarduerak gizabanakoek ez badituzte eskatu baina hauek egindako edo ez egindako zerbaitengatik burutu behar izan badira, egindakoa edo ez egindakoa lepora dakiokena.

6. artikulua

Ordenantza honetatik ateratzen diren zerga-zorrak, subjektu pasiboarekin batera, tarifak aplikatzeko arauetan —eranskinean ageri dira— aipatzen diren pertsonak ordaindu beharko dituzte.

IV. Salbuespenak, murrizketak eta hobariak

7. artikulua

Honako salbuespen eta hobari hauek finkatu dira:

-Salbuetsita egongo dira gizarteratzeko diru-sarrerak bermatzeko errenta jasotzen dutenak; egoera hori egiaztatu behar dute, eta horretarako alde aurretik Zigoitiko Oinarrizko Gizarte Zerbitzuari egiaztagiria eskatuko diote.

-Ehuneko 75eko hobaria izango dute gizarte larrialdiko laguntza jasotzen dutenek; egoera hori egiaztatu beharko dute, eta horretarako alde aurretik Oinarrizko Gizarte Zerbitzuari egiaztagiria eskatu beharko diote.

V. Zerga-oinarria

8. artikulua

Zerbitzua egiten duen unitate bakoitza izango da zerga oinarria, dagokion tarifak dioen neurrian.

VI. Kuota

9. artikulua

1.- Zerga kuota zehazteko, aurreko artikuluari darion oinarriari eranskinean jasotako dagokion tarifa gehituko zaio. Gehitu ere, bertan, eranskinean, zehaztutako arauen arabera. Hau da, tarifa aplikatu ondoren ematen duenari, zehaztutako zenbateko bat gehituko zaio edo, bestela, biak batera aplikatuz ematen duena.

VII. Sortzapena eta zergaldia

10. artikulua

1.- Tasaren sortzapena zerbitzua ematen edo jarduera egiten hasten denean sortuko da. Hala ere, zenbateko osoaren edo zati baten gordailua eska daiteke.

2.- Tasa urte bakoitzeko urtarrilaren 1etik aurrera izango da zor eta zergaldiak urte osoa hartuko du, salbu eta zerbitzu edo jarduera hasi edo uzten den urtean. Horrelakorik





gertatuz gero, zergaldia egoera horri egokituko zaio eta kuota hainbanatu egingo da, baldin eta eranskinean jasotako aplikazio arauak hala xedatuta badute.

VIII. Likidazioa eta ordainketa

11. artikulua

Kontzeptu bakoitzarengatik egin beharreko likidazioa udal administrazioak egingo du, eta likidatutako kuota ordaindu beharko da, ordainarazpen bakoitzerako eranskinean dauden arauen arabera.

Hala ere, tasak autolikidazioaren bidez ordaintzeko ere eskatu ahalko da.

IX. Tasen kudeaketa

12. artikulua

Ordenantza honek araututako zergen likidazioari, bilketari eta ikuskaritzari dagokion guztian eta zergen arau-hausturetan eta dagozkien zehapenak zehazteari dagokion guztian, Arabako Lurralde Historikoaren Zergei buruzko Foru Arau Orokorak xedatutakoa aplikatuko da.

X. Azken xedapena

Ordenantza hau indarrean sartuko da ALHAOn argitaratzen den hurrengo egunetik aurrera eta indarrean jarraituko du aldatzea edo indargabetzea erabakitzen den arte.

B. PREZIO PUBLIKOAK

I. Xedapen orokorrak

1. Artikulua

Zigoitiko Udalak, Tokiko Ogasunak arautzen dituen uztailaren 19ko 41/1989 Foru Arauaren 20.1.B) eta 43tik 50erako artikuluetan, eta Balio Erantsiaren Zerga arautzen duen urtarrilaren 19ko 12/1993 Foru Dekretu Arautzailean ezarritakoarekin bat eginez, udalaren eskumenekoak diren zerbitzuak ematerakoan edo jarduerak egiterakoan prezio publikoak ezarri eta eskatu ahal izango ditu.

Ezingo da prezio publikorik eskatu, Tokiko Ogasunak arautzen dituen uztailaren 19ko 41/1989 Foru Arauaren 20. Artikuluan zerrendatutako zerbitzuengatik.

2. Artikulua

Prezio publikoak, Zigoitiko udalerraren lurralde-eremu osoan aplikatuko dira.

II. Jarduera zergapegarria

3. Artikulua

Jarduera zergapegarria honakoa da: zerbitzuak ematea edo jarduerak egitea, beti ere, Tokiko Ogasunak arautzen dituen Foru Arauaren 20.1.B) artikuluan zehaztutako baldintzaren bat betetzen ez duten zerbitzu edo jarduerak badira. Hau da, administratuek eskatutako edo borondatez jasotakoak izatea, eta esparru pribatuak ere zerbitzu hori ematea edo egitea.

Balio Erantsiaren Zerga arautzen duen urtarrilaren 19ko 12/1993 Foru Dekretu Arautzailearen 7.8. artikuluan ezarritakoarekin bat eginez, kontrako zentzuan, Tokiko Administrazioak egiten dituen zerbitzuak, bere kontraprestazioa prezio publiko bat bada, Balio Erantsiaren Zergapean egongo dira, zerbitzuak atxikipena badu, eta salbuetsita ez badago.

III. Subjektu pasiboa





4. Artikulua

Subjektu pasiboak izango dira, zergadun modura, zerbitzu edo jardueren onuradun diren pertsonak, zerbitzu edo jarduera horiek prezio publikoak badituzte.

IV. Zenbatekoa eta murrizketak

5. Artikulua

Prezio publikoen zenbateko osoak gutxienez emandako zerbitzuaren edo gauzatutako jardueraren kostua bete beharko du.

Tartean gizartearen, ongintzaren, kulturaren edo interes publikoaren esparruko arrazoiak badaude, eta arrazoi horiek hala gomendatzen badute, Zigoitiko Udalak aurreko gutxienekoaren azpitik ezarri ahal izango ditu prezio publikoak. Orokorrean, prezio publiko murriztuak ezingo du zerbitzuaren edo egindako ekintzaren kostuaren ehuneko 50tik behera xedatu.

Kasu horietan, udal aurrekontuan beharrezko hornidura atxiki beharko da, desberdintasuna estaltzeko.

V. Sortzapena

6. Artikulua

Prezio publikoa ordaintzeko betebeharra zerbitzua ematen hasten denean edo jarduera gauzatzen denean hasiko da. Hala ere, Zigoitiko Udalak alde aurretik zenbateko osoa edo zati bat ordaintzea eskatu ahal izango du.

Zerbitzu publikoa ordaintzeko betebeharra duenari egotzi ezin zaizkion arrazoiengatik, zerbitzua edo jarduera ez bada ematen edo gauzatzen, ofizioz itzuliko zaio dagokion zenbatekoa.

Zigoitiko Udalak prezio publikoak eskatu ahal izango ditu, autolikidazio modura.

VI. Prezioak ezartzea

7. Artikulua

Prezio publikoak ezartzeko edo aldatzeko erabakia hartzea Udaltzaren Osoko Bilkuraren ardura da, indarrean dagoen legeriaren arabera.

1.- ZABORRAK BILTZEKO ZERBITZU PUBLIKOA ESKAINTZEA

I.- Xedapen orokorrak

1. artikulua

Arabako Lurralde Historikoko Toki Ogasunak arautzen dituen Foru Arauan ezarritakoari jarraituz, zaborrak biltzeko zerbitzua emateagatik ordaindu beharreko tasa ezarri eta eskatuko du Udalak, ordenantza honen arabera. Ezarri beharreko tarifak jasotzen dituen eranskina ere ordenantzaren zati da.

2. artikulua

Ordenantza udalerrri osoan ezarriko da.

II.- Zergagaia

3. artikulua

1.- Tasa honen zergagaia da zarama biltzeko zerbitzua ematea, garraiatzea eta baimendutako zabortegetian tratamendua egitea. Tasa hori ordaindu beharko da udalak





zuzenean kudeatuta zein partzuergoaren edo kontratistaren bidez ematen bada zerbitzua.

2.- Zerbitzua gauzatutzat joko da, eraikina dagoen eremuan zaborrak jasotzeko udal zerbitzua ezarrita eta jardunean ari denean.

3.- Etxeetako zarama biltzeko zerbitzua ematea orokorra eta nahitaezkoa da. Horregatik, udal antolakuntzak barne hartzen duen eremuan dauden eraikinetako titularrek eta erabiltzaileek zerbitzua erabiltzen dutela jakintzat emango da.

Honako hondakinak bildu, garraiatu, gorde eta deuseztatzea borondatezkoa da: lantegi eta tailerretako prozesu edo lantze industrialek sortutako hondakin solidoak; obra eta eraispenetatik ateratako eskonbru eta lurrak; ospitale, klinika eta osasun zentroetako detrituak.

III.- Subjektu pasiboak eta salbuespenak

4. artikulua

1.- Tasaren subjektu pasiboak dira zaborrak biltzeko zerbitzua eskatzen dutenak, edo zerbitzuaren ondorioz onurak edo kalteak jasotzen dituztenak.

2.- Etxebizitza edo lokaletako okupatzaileentzat onura edo kalte diren zerbitzu edo jarduerak direla eta ezarritako tasetan, zergapekoaren ordezkotza izango dute etxebizitza edo lokal horien jabeek. Hala badagokie, beraiengan izango dute eragina, bakoitzarekin lotutako onuradunen kuotek.

3.- Zerbitzu orokor eta nahitaezkoak emateagatik tasa ordaindu behar duten subjektu pasiboek alta, baja eta aldaketa aitortpenak aurkeztu beharko dizkiote udalari, hau da, tasa zuzen ezartzeko behar diren datuak eman beharko dizkiote, tasaren menpe dagoen etxebizitza, lokala edo establezimendua erosten den egunetik hasita hilabeteko epean, edo horri eragiten dion aldaketa gertatzen den egunetik hasita; horretarako udalak onartutako eredia erabili beharko da.

4.- Bizilekuaren titulartasunean aldaketak egonez gero, jabeak nahitaez jakinarazi beharko dizkio Zigoitiko Udalari eroslearen identifikazio-datuak. Edozein kasutan ere, titularrak eroslearen ordezkotza izango du.

5 artikulua

Zigoitiko Udalaren eta Zigoitiko udalerriko kontzejuen bere baitako higiezinak ez dute tasa hau ordaindu beharrik izango, haien helburuak betetzeko erabiltzen badira. Udalaren eta Zigoitiko udalerriko kontzejuen jabetzako etxebizitza edo negozio-lokalen errentariak ez dira horretan sartzen.

IV. Kuota

6. artikulua

1.- Zergaren kuota urterokoa da, eta eranskinean jasota dagoen tarifen koadroan oinarrituta zehazten da.

V.-Sortzapena

7. artikulua

1.- Tasa urtarilaren lehenengo egunean sortzen da, eta zergaldiak urte natural osoa hartuko du, udalak tasa hau hiru hilean behin edo sei hilean behin kobratzeko aukera ere izango duelarik.

2.- Zerbitzua erabiltzen hasi edo erabiltzeari uzten zaionean, zergaldia egokitu egingo da, kuota hainbanatuz. Hainbanaketa hurrengo atalean zehazten denaren arabera egingo da.

3.- Tasaren kuotaren zenbatekoa hainbanatu egingo da hiruhileko naturalen arabera, zerbitzua erabiltzen edo jasotzen hasi edo amaitzerakoan. Alta emateak eragina izango du, zerbitzua eskatu edo ematen den hiruhilekoaren lehenengo egunetik. Baja emateak eragina izango du, baja-eskaeraren hurrengo hiruhilekoaren lehenengo egunetik.

VI.- Arau-haustek eta zehapenak





8. artikulua

Zerga arau-hausteen kalifikazioari buruzko guztian, bai eta kasu bakoitzean arau-hauste horiei dagozkien zigorren kalifikazioan ere, Arabako Zergei buruzko Foru Arau Orokorrak 77. artikuluan eta hurrengoetan xedatutakoari jarraituko zaio.

ERANSKINA

Zaborrak biltzeko zerbitzu publikoa emateagatik jaso beharreko tasak

Etxebizitzak eta lokalak	
Etxebizitzak	105,46 euro
Lokal profesionalak	105,46 euro
Dendak	210,82 euro

Zerbitzu-lokalak	
Zaldi-eskola	210,38 euro
Zahar-egoitzak, 20 plazara artekoak	259,30 euro
Zahar-egoitzak 21 eta 40 plaza bitartekoak	434,77 euro
Zahar-egoitzak, 40 plaza baino gehiagokoak	610,15 euro
Kirol-esparrua	873,50 euro
Gizarte zentroak	187,53 euro

Ostalaritzakoak	
Txokoak	295,27 euro
Tabernak/kafetegiak	295,27 euro
Sardexka bateko jatetxeak	506,30 euro
Sardexka biko jatetxeak	632,52 euro
Ostatua/nekazal turismoa	259,30 euro

Industria	
500 m ² ra artekoak	233,25 euro
501 m ² tik 1.000 m ² ra bitartekoak	853,58 euro
1.001 m ² tik 3.000 m ² ra artekoak	1.308,16 euro
3.001 m ² tik 10.000 m ² artekoak	1.962,34 euro
10.000 m ² baino gehiagokoak	2.616,56 euro

2.- AURRETIAZKO JAKINARAZPENA JARDUERAREN HASIERAN ETA ESTABLEZIMENDUAK IREKITZEKO BAIMENA

1.Artikulua.- Helburua





Merkataritza, lanbide edo industriekin lotutako jardueretan aritzeko establezimenduak edo instalazioak edo lokalak zabaltzeko behar den aurretiazko jakinarazpena egitean behar diren kontrolezko administrazio jarduerak izango dira tasa honen helburua, bai eta jarduera horien lagungarri diren edo horiekin zerikusia duten espazioak zabaltzeko behar direnak.

2.Artikulua.- Tarifak

Zerga-kuotak tarifa hauen arabekoak izango dira:

1. epigrafea.- Aurretiazko jakinarazpenaren erregimenpean dauden jarduera eta instalazio klasifikatuak, Euskadiko Ingurumen Administrazioaren abenduaren 9ko 10/2021 Legearen I. D eranskinaren arabera.

1. idatz-zatia.- Ekipamendu publikoak	33,89 euro
2. idatz-zatia.- Nekazaritzako/abeltzaintzako ustiategiak	
500 m ² ra artekoak	66,14 euro
501 m ² tik 1000 m ² ra bitartekoak	133,00 euro
501 eta 1000 m ² ko tartean oinarritzat hartu den kopurutik abiatuta, lokalak dituen 1000 m ² bakoitzeko, ehuneko 10 gehiago ordaindu beharko da.	
3. idatz-zatia.- Aurreko idatz-zatietan ezarrita ez dauden gainerakoak	
50 m ² ra artekoak	92,43 euro
51 m ² tik 100 m ² ra bitartekoak	138,65 euro
101 m ² tik 200 m ² ra bitartekoak	205,40 euro
101 eta 200 m ² -ko tartean oinarritzat hartu den kopurutik abiatuta, lokalak dituen 100 m ² bakoitzeko, ehuneko 10 gehiago ordaindu beharko da.	

2. epigrafea.- Lizentziaren erregimenpean dauden jarduera eta instalazio klasifikatuak, Euskadiko Ingurumen Administrazioaren abenduaren 9ko 10/2021 Legearen I. C eranskinaren arabera.

1. idatz-zatia.- Industriako lokalak	
1.000 m ² ra artekoak	737,39 euro
Lokalak dituen 1.000 m ² bakoitzeko, kuotaren ehuneko 10 gehiago ordaindu beharko da.	
2. idatz-zatia.- Industriakoak ez diren lokalak	
2.1.-Nekazaritzako/abeltzaintzako ustiategiak:	
500 m ² ra artekoak	94,48 euro
501 m ² tik 1000 m ² ra bitartekoak	190,00 euro
501 eta 1000 m ² ko tartean oinarritzat hartu den kopurutik abiatuta, lokalak dituen 1000 m ² bakoitzeko, ehuneko 10 gehiago ordaindu beharko da.	
2.2.- Ekipamendu publikoak:	
Ekipamendu publikoak	48,41 euro
2.3.- Aurreko idatz-zatietan ezarrita ez dauden gainerakoak:	
100 m ² ra artekoak	94,48 euro





101 m ² tik 200 m ² ra bitartekoak	190,00 euro
201 m ² tik 500 m ² ra bitartekoak	378,96 euro
201 eta 500 m ² -ko tartean oinarritzat hartu den kopurutik abiatuta, lokalak dituen 500 m ² bakoitzeko, ehuneko 10 gehiago ordaindu beharko da.	

3.artikulua.- Aplikazio arauak:

1.- Tasaren sortzapena burutuko da Udalak zergapeko egitatea osatzen duten kontrol jarduerekin hasten dituenean.

2.- Ordainarazpen honen ondorioetarako, hauek izango dira irekitzeko baimena lortu beharra duten establezimendu edo instalazioak, aurretzako jakinarazpenaren erregimenpean daudenak:

a) Hasierako instalazioak, bai eta merkataritza, industria edo zerbitzuetarako erabiltzen diren makinak edo beste elementuak jartze hutsa ere, nahiz eta berehala abiarazi, funtzionatu edo ireki ez.

b) Lokalez aldatzea.

c) Establezimenduan ematen den jardueraren aldaketa, nahiz eta izena, titularrak edo lokala berdina izan.

d) Jarduera zabaltzea; Jarduera Ekonomikoen gaineko Zergaren kuota handituz gero horrelakorik egon dela ulertuko da, salbu eta iguera hori zergak aldatu direlako gertatzen bada.

e) Lokalak handitzea.

3.- Aurretzako jakinarazpena aurkeztu ondoren establezimenduek jarduera aldatzen badute, egoera hauen arabera likidatuko da tasa:

a) Jarduera berria dela eta jardueren gaineko zergan dagokion atala edo dibisioa aldatu behar bada, dagokion tasa likidatuko da.

b) Aurretzako jakinarazpenak, establezimendu berean jarduera bat baino gehiago aurreikusten badu, kopuru handieneko epigrafearen arabera ordainduko da.

4.- Aurretzako jakinarazpena aurkeztu ondoren, interesdunek uko egin ahal diote honi. Hori gertatuz gero, eta eman izanaren jakinarazpenaz geroztik hogeita hamar eguneko epean egiten bada uko, ordaindu duten tasaren ehuneko 80 itzultzeko eskubidea izango dute edo, aurretik ordaindu ez badute, likidazioaren ehuneko 20 ordainduko dute; jakinarazpenaz geroztik hogeita hamar eguneko epea igaro ondoren baina hiru hilabeteko epearen barruan egiten bada uko, itzuli edo ordaindu beharrekoa ehuneko 50 izango da.

5.- Ez zaie zergarik ezarriko titulartasun aldaketen jakinarazpenei, jardueran aldaketarik egon ez denean.

6.- Tasa hau autolikidazioaren prozeduraren bidez bildu ahalko da.

3.- HIRIGINTZARI BURUZKO GALDEREI IDATZIZ ERANTZUTEA

1. Artikulua.- Zerga-kuota

Zerga-kuotak honako hau bete beharko du:

- Finka, egikaritze unitate edo sektore bati aplikatu ahal zaion araudi urbanistikoari buruzkoak: 60 euro.

- Jardueretarako leku, betebehar edo mugei buruzkoak: 60 euro.

2. Artikulua.- Aplikatu beharreko arauak:

1.- Txostenaren edo kontsultaren eskabidea egiten den unean sortuko da tasa.

2.- Tasa biltzeko, autolikidazioaren prozedura erabili ahal izango da.

3.- Zigoitiko Udalerriko Kontzejuak tasa hau ordaintzetik salbuetsita daude.





4.- FOTOKOPIAK ETA ANTZEKOAK EGITEA

1. Artikulua.- Aplikatu beharreko arauak:

1.- Interesdunek alde aurretik hala eskatuta, agirien fotokopiak, kopia eta horien antzekoak egiteagatik eskatuko da tasa hau.

2.-Ordaintzeko betebeharra zerbitzua eskatzen den unean sortzen da. Zerbitzua, emateko eskatzen denean ordainduko da, eta autolikidazioaren bidez bilduko da.

3.- Zerbitzua emateko eskatzen duten pertsona fisiko edo juridikoei ordaindu behar dute eta zerbitzuaren truke ezarritako tasa ordaintzen ez bada ez da horren emaitza entregatuko.

4.- Honakoek ez dute tasa ordaindu beharrik izango:

a) Administrazio Batzarrek, Administrazio publikoek oro har, erakunde ofizialek eta botere judizialeko organoek.

b) Hogei fotokopia Din A4 baino gutxiago; Din A3 lau.

5.- Hurrengo prezio hauek BEZa barne dute.

2. Artikulua.-Tarifak

	Normala	Txikiago	Handiago
Din A4-ko fotokopia (20 gutxienez)	0,20 euro	0,20 euro	0,20 euro
Din A3-ko fotokopia (4 gutxienez)	0,72 euro	1,00 euro	1,00 euro

A3 baino tamaina handiagoko fotokopiak izanez gero eta proiektu eta agiriei makina berezirik behar izanez gero, erreprografiako merkataritza-establezimenduak Udalari bidaltzen dion ordainagiriaren ehuneko 110.

5.- UDAL IGERILEKUA ERABILTZEA

1. Artikulua.- Kudeaketa

1. Kudeaketa: abonu berriak:

Abonu berrien kauan, udal-igerilekuaren erabilera-tasa, autolikidazio-araubidean kudeatuko dira. Subjektu pasiboek autolikidazioa egin beharko dute derrigorrez. Horretarako, ezarritako inskripzio-eskaera bete beharko dute, eta hori egiaztatuta egon beharko da eskaera aurkezterakoan. Egiaztatzen ez den bitartean ez da eskaera izapidetuko.

Inskripzio- eta autolikidazio-eskaerarekin batera, tasa ordaindu dela egiaztatu beharko da. ~~Horretarako, banku transferentziaren ordainagiria edo herritarrentzako arreta-bulegoan txartel bidezko ordainketaren ordainagiria erantsiko dira; bestela, udaleko kirol instalazioetan eskudiruz ordainduko da.~~

2. Kudeaketa: aurreko urteetako abonua berritzea:

Inskripzio-eskaeran abonua automatikoki bi urtez jarraian berritu nahi dutela adierazi duten pertsonen kasuan, zerga-likidazioaren jakinarazpena forma kolektiboan egingo da Arabako Lurralde Historikoko Aldizkari Ofizialean eta Zigoitiko Udaleko iragarki-taulan iragarki bat jarri.

Tasa ordainduko da banku-helbideratze bidez, zergadunak inskripzio-eskaeran





emandako bankuko datuak aintzat hartuta.

Ez dira onartuko urte bakoitzeko maiatzaren 31 eta gero aurkeztutako kuotak itzultzeko eskaerak.

2. Artikulua.- Tarifak

Tarifak, honakoak izango dira:

1.- Sarrera txartela, egunekoa.	
5 urte arte	dohainik
5 eta 18 urte bitartekoak	2 euro
18 urte baino gehiagokoak	5 euro
2.- Urteko abonamendua pertsonako.	
5 urte arte	dohainik
5 eta 18 urte bitartekoak	11 euro
18 urte baino gehiagokoak	20 euro
3.- Familia-abonua denboraldi baterako	40 euro
4.- Familia ugariaren abonua (18 urtetik beherako 3 seme edo gehiago) denboraldi bakoitzeko	28 euro

5.- Familia-unitate gisa hartuko dira honako hauek:

1. Senar-emazteen edo izatezko bikotearen kasuan, ezkontideek edo legez banatu ez diren izatezko bikotearen kideek osatutakoa, eta, baldin badaude, seme-alabek osatutakoa.

1. Senar-emazterik ez izatezko bikoterik ezean, seme-alabak dituzten bikoteak. Seme-alaba adingabeak baino ez dira familia-unitatearen parte gisa hartuko.

2. Guraso bakarreko familiak, guraso batez eta seme-alaba adingabeek osatuta, hurrengo atalean aipatzen diren baldintzak betetzen dituztenak.

- Legezko banantzea dagoenean.
- Deuseztasuna deklaratu denean edo alargundu denean.
- Ebazpen judizial bat dagoenean.
- Aita edo ama ezkongabea.

Familia-unitateko kideak xedatzeko, kontuan hartuko da urte bakoitzeko urtarilaren 1ean dagoen egoera.

Halaber, eskaeran emandako datuetan egindako edozein aldaketa Zigoitiko Udalarri jakinarazi beharko zaio.

Zigoitiko Udalak familien abonu-datuak egiaztatu ahal izango ditu, eta, eskaerako datuek bat egiten ez badute, errekerimendu bat egingo dio abonuaren titularrari, hamabost eguneko epean egokitatzat jotzen dituen argibideak aurkez ditzan. Argibideak aurkeztuta, Zigoitiko Udalak ebazpena egingo du, eta, hala badagokio, egoki den likidazioa egingo du. Epea igarotzen bada alegaziorik aurkeztu gabe, automatikoki zerbitzuaren baja emango zaie familia-unitateko kide guztiei.





6.- Taldeentzako tarifak	
20 haur baino gehiagokoa	1,50 euro haur bakoitzeko
20 heldu baino gehiagokoak	2,50 euro heldu bakoitzeko

7.- Bonuak	
Haurrentzako 20 sarrerekin (5 eta 18 urtekoak)	25 euro
Helduentzako 10 sarrerekin (18 urtetik aurrerakoak)	25 euro

6.- UDAL PILOTALEKUA **ETA BENGARRAKO PARKEA** ERABILTZEA.

1. Artikulua.- Kudeaketa

Erabilera libre eta doakoa izango da, baldin eta ~~udal~~ **ekimen** publiko zein pribatuko jarduera bat egiteko erreserbatuta ez badago.

Pilotalekua erabiltzeko erreserba hiru hilean behin zozketatuko da (asteko ordubeteko erreserba). Esleipendun erabiltzaileek hiruhilekoa hasi baino lehen ordaindu beharko dute dagokien tasa. Larunbat eta igandetarako ezin izango da hiru hilean behin erabiltzeko erreserbarik egin.

Tasa autolikidazio-erregimenean kudeatuko da. Subjektu pasiboak behartuta daude autolikidazioa egitera, horretarako pilotalekua **edota parkea** erabiltzeko ezarritako eskaera bete beharko dute.

Eskabidea aurkeztearekin batera, tasa ordaindu izana egiaztatu beharko da, ~~banku-transferentziaren egiaztagiria edo txartelarekin ordaindu izanaren egiaztagiria erantsita, herritarren arretarako bulegoan.~~

2. Artikulua.- Tarifak

Tarifak, honakoak izango dira:

1.- Kantxa erabiltzeko	
Ordukako erabilera	4 euro orduko
Hiru hileko erreserbaren erabilera	3 euro orduko

2.- Batzar administratiboek, Zigoitiko udalerriko kontzejuek, elkarteen udal-erregistroan izena emanda dauden elkarteek eta talde politikoek udal pilotalekua **edota Bengolarra parkea** erabiltzeko, udalaren baimena izateaz gain, 400 euroko fidantza jarri beharko dute, eta tasa ordaintzetik salbuetsita egongo dira.

3.- **Udal pilotalekua eta/edo Bengolarrako parkea beste talde batzuek erabiltzeko, aldeztatik udalaren baimena lortzen badute, 400 euroko fidantza jarri beharko da eta 50 euroko tasa ordaindu.**

4.- **Konexio elektrikoa behar duten instalazioak (txosnak, barrakak...) Bengolarrako parkean jarriz gero, 60 euroko tasa ordainduko da.**

~~5.- Udal pilotalekua erabiltzeko, irabazi asmorik gabeko otorduak, adibidez ezkontzak, herri-bazkariak, mokaduak eta antzekoak, egiteko, Udalaren baimena izateaz gain, 400~~





~~euroko fidantza jarri eta 50 euroko tasa ordaindu beharko da.~~

7.- KULTUR, KIROL ETA GIZARTE- JARDUERAK

Tarifak, honakoak izango dira:

7.1.- Kirol eta kultur ikastaroak:

Kirol- eta kultura-ikastaroetara joatearen trukeko tasak eta prezio publikoak autolikidazio-araubidean kudeatuko dira. Subjektu pasiboek autolikidazioa egin beharko dute derrigorrez. Horretarako, ezarritako inskripzio-eskaera bete beharko dute, eta hori egiaztatuta egon beharko da eskaera aurkezterakoan. Egiaztatzen ez den bitartean ez da eskaera izapidetuko.

Tasa edo prezio publikoak ordainduko da banku-helbideratze bidez, zergadunak inskripzio-eskaeran emandako bankuko datuak aintzat hartuta. Tasaren borondatezko sartzeepea hilabete izango da, inskripzio-eskaera aurkezten denetik hasita.

Tasa eta prezio publikoak bakarrik itzuli ahal izango da udaleko erregistro orokorrean aurkeztutako ikastaroetan baja emateko eskaeren kasuan, baldin eta ikastaroak hasi baino lehen egin bada.

7.1.1. Tasak:

Tasa ezberdina ezartzen da honen arabera: parte-hartzaileak 18 urte baino gutxiago edo gehiago dituen.

7.1.1.1.- Hiru hileko ikastaroen tasak (urria-abendua):

	18 urtetik gora	18 urtetik behera
Astean ordubete	26 euro	20 euro
Astean ordu eta erdi	39 euro	30 euro
Astean 2 ordu	52 euro	40 euro
Astean 2 ordu eta erdi	75 euro	50 euro
Astean 3 ordu	78 euro	60 euro

7.1.1.2.- Bost hileko ikastaroen tasak (urria-maiatza):

	18 urtetik gora	18 urtetik behera
Astean ordubete	44 euro	33 euro
Astean ordu eta erdi	66 euro	49,50 euro
Astean 2 ordu	88 euro	66 euro
Astean 2 ordu eta erdi	110 euro	82,50 euro
Astean 3 ordu	132 euro	99 euro

7.1.1.3.- Bestelako ikastaroen tasak (udako ikastaroak,...):

Ikasturteko ordu kopuruaren arabera ezarriko da. Orduak 2 euro balio du 18 urtetik gorakoentzat, eta 1,5 euro 18 urtetik beherakoentzat.

7.1.2. Prezio publikoak:

7.1.2.1.- Padel ikastaroko prezio publikoa (bi ordu astero):





- Hiruhilabeteko ikastaroa, urritik abendura:

	18 urtetik gora	18 urtetik behera
Astean 2 ordu	90 euro	60 euro

- Bost hilabeteko ikastaroa, urritik abendura:

	18 urtetik gora	18 urtetik behera
Astean 2 ordu	150 euro	100 euro

7.2.- Haurrentzako udalekuak

Udalekuetara joatearen trukeko tasak autolikidazio-araubidean kudeatuko dira. Subjektu pasiboek autolikidazioa egin beharko dute derrigorrez. Horretarako, ezarritako inskripzio-eskaera bete beharko dute, eta hori egiaztatuta egon beharko da eskaera aurkezterakoan. Egiaztatzen ez den bitartean ez da eskaera izapidetuko.

Inskripzio- eta autolikidazio-eskaerarekin batera, tasa ordaindu dela egiaztatu beharko da. ~~Horretarako, banku transferentziaren ordainagiria edo herritarrentzako arreta-bulegoan txartel bidezko ordainketaren ordainagiria erantsiko dira.~~

1. umea	50 euro
2. umea	30 euro
3. umea	25 euro
4. umetik aurrera	dohain

Prezio horiek 10 egunetan zehar egiten diren udaleku-jardueretan aplikatuko dira. Jardueraren egun kopurua beste bat bada, aplikatu beharreko tasa adierazitako zenbatekoekiko proportzionala izango da.

7.3.- Ikuskizunak: antzerkia, musika, pailazoak...

Tarifak, honakoak izango dira:

7.3.1.- Preziorik gabeko ikuskizunerako sarrerak:

Publiko guztientzat	dohainik
---------------------	----------

7.3.2.- 500 euro arteko prezioa duten ikuskizunerako sarrerak (BEZA barne):

Publiko guztientzat	2 euro
---------------------	--------

7.3.3.- 501 euro eta 1.000 euro (BEZA barne) arteko prezioa duten ikuskizunerako sarrerak:

18 urtetik beherakoak	3 euro
18 urtetik gorakoak	5 euro
60 urtetik gorakoak	3 euro

7.3.4.- 1.001 euro eta 3.000 euro (BEZA barne) arteko prezioa duten ikuskizunerako sarrerak:

18 urtetik beherakoak	5 euro
18 urtetik gorakoak	8 euro
60 urtetik gorakoak	5 euro





7.3.5.- 3.001 euro (BEZA barne) baino gehiagoko prezioa duten ikuskizunerako sarrerak:

18 urteik beherakoak	8 euro
18 urteik gorakoak	10 euro
60 urteik gorakoak	8 euro

7.3.6.- Beste baldintza batzuk:

Haurrentzako zuzendutako ikuskizunen kasuan, haurra laguntzen duen nagusiarentzako sarrerak, 18 urteik beherakoentzako prezio berdina izango du.

Edozein kasutan, 3 urte arteko umeak dohain sartuko dira.

7.4. Zinea

Udal zerbitzuetako programazioan sartu gabeko zine-forum zikloak edo emanaldiak (ludoteka, gaztelekua, liburutegia, eguneko arretarako landa zentroa,...)

Sarrera 4 urteik gorakoentzat	3 euro
-------------------------------	--------

7.5.- Kultura-guneak erabiltzea

Tarifak, honakoak izango dira:

7.5.1.- Elkarateek edo irabazi-asmorik gabeko erakundeek garatutako jardueretarako:

Gelak eta tailerrak (kz gune, Zubialde, Gorbea, Bengolarra, erretiratu klubaren gela) ordu erdiz edo gutxiagoz erabiltzeagatik	3 euro
--	--------

Areto nagusia (Zigoitia gela) ordu erdiz edo gutxiagoz erabiltzeagatik	6 euro
--	--------

7.5.2.- Gainontzeko jardueretarako:

Gelak eta tailerrak (kz gune, Zubialde, Gorbea, Bengolarra, erretiratu klubaren gela) ordu erdiz edo gutxiagoz erabiltzeagatik	6 euro
--	--------

Areto nagusia (Zigoitia gela) ordu erdiz edo gutxiagoz erabiltzeagatik	9 euro
--	--------

7.5.3.- Beste baldintza batzuk:

Tasa horiek barne hartzen dute gunearen erabilera, gunearen hornidura tekniko eta zentroko arduradunaren laguntza.

Zentroaren ohiko ordutegitik kanpo erreserba eginez gero, eskatzailea atezainaren gastuaz arduratuko da, 30 euro ordainduz, ordubetez edo gutxiagoz erabiltzeagatik.

Ikus-entzunezko hornidura erabiltzeko udalak izendatutako aretoko teknikaria beharko





da. Teknikari honen gastuaz eskatzailea arduratuko da, 40 euro ordainduz, ordubetez edo gutxiagoz erabiltzeagatik.

Ikuskizuna dela-eta, zerbitzuak osatu behar badira beste langile eta beste hornidura batzuekin, eskatzailea arduratu beharko da horietaz, betiere, udalak onetsi eta gainbegiratu ondoren; eta, udala bera bada zerbitzu horiek kudeatu behar dituena, ehuneko 110eraino igoko da fakturaren kostua.

Ez dute tasa hau ordaindu behar Zigoitiko udalerriko kontzejuek, Zigoitiko udalaren erregistroan dauden elkarteek, udalerriko talde politikoek eta hautesle-taldeek. Bakarrik, atezainaren, soinu-teknikariaren edo gainontzeko pertsonalaren gastuak ordaindu beharko dituzte, zerbitzua prestatzeko beharrezkoak badira, lehengo parrafoan agertzen den bezala.

7.6.- Ikus-entzunekeo materiala erabiltzea

Zigoitiko udalerriko kontzejuek, Zigoitiko udalaren erregistroan dauden elkarteek eta udalerriko talde politikoek eta hautesle-taldeek udaleko ikus-entzunezko ekipoak eta materiala erabil ditzakete doan; horretarako, 130 euroko fidantza utzi beharko dute.

7.7.- Agertoki desmuntagarriak erabiltzea

Zigoitiko udalerriko kontzejuek, Zigoitiko Udaleko elkarte-erregistroan inskribatutako elkarteek eta udaleko alderdi politikoek zein hautesle-elkarteek aukera izango dute udaleko agertoki desmuntagarriaren moduluak dohainik eskuratzeko. Horretarako, 130 euroko fidantza eman beharko dute.

7.8.- Aulkiak eta mahaiak erabiltzea

Zigoitiko udalerriko kontzejuek, Zigoitiko Udaleko elkarte-erregistroan inskribatutako elkarteek eta udaleko alderdi politikoek zein hautesle-elkarteek aukera izango dute udaleko aulki eta mahaien moduluak dohainik eskuratzeko.

8.- ARRISKUTSUAK DIREN ANIMALIEN BAIMENA EGITEAGATIK TASA

1. Artikulua.- Zergagaia:

Tasaren zergagaia hau da: arriskutsuak diren animaliak izateko legeak eskatzen duen administrazio-lizentzia eskatzeko edo berritzeko behar diren zerbitzu tekniko eta administratiboak ematea.

2. Artikulua.- Subjektu pasiboa:

Subjektu pasiboak dira, lizentzia eskatzen duten pertsonak.

3. Artikulua.- Zerga-Kuota:

Tasaren zenbatekoa 32 eurokoa izango da, bai lehenengo lizentzia ematean, bai lizentzia berritzean.

9.- UDAL BOLATOKIA ERABILTZEKO TASA

Erabilera libre eta dohainekoa izango da, beti ere, udalaren ekimenez edo ekimen pribatuz antolatutako jardueraren baterako erreserbatuta ez badago. Larunbat eta igandetarako ezin da erreserbarik egin.

Bolatokia erabiltzeagatik:

Tarifa

2,00 euro/ordu

Ez da tasarik ordaindu behar bolatokia elkarteek edo klubek antolatutako





txapelketarako edo txapelketen aurreko entrenamenduetarako (txapelketaren aurreko astea) erabiltzen denean.

Zigoitiko udalerriko kontzejuek, Zigoitiko udalaren erregistroan dauden elkarteek eta udalerriko talde politikoek eta hautesle-taldeek ez dute tasa hori ordaindu behar.

10.- UDALEKO HERRITARREN TXARTELA BERRITZEKO TASA

Udaleko herritarren txartela (UHT) Zigoitiko Udalak egindako txartela da, eta udaleko zenbait zerbitzu eta izapidetan haren titularra identifikatzea du helburu. Tasa honen xedea da txartela emateko beharrezkoak diren zerbitzu administratiboak ematea.

Txartela dohainik emango da lehen aldian, eta haren erabilera pertsonala eta besterenezina izango da.

Udaleko herritarren txartela (UHT) galdu edo lapurtuz gero, titularrak baja eman beharko du herritarrentzako arreta-bulegoan.

Ondoren, nahi badu, txartel berri bat lortzeko izapideak agindu ahal izango dira; eta, galera edo apurketaren kasuan, 6,00 euro ordaindu beharko dira.

11.- ARMEN TXARTELA

Armen araudia onartzen duen urtarrilaren 29ko 137/1993 Errege Dekretuaren 3 artikuluko 4. kategoriako armen txartela emateko zerbitzua, dohainik izango da.

Armen txartelaren eskaerarekin batera, ondorengo dokumentazioa aurkeztu beharko da:

- a) Indarrean dagoen aurrekari penalen ziurtagiria.
- b) Gaitasun psikofisikoen txostena, zentro homologatu batek emana.
- c) NAN.
- d) Erosketa ziurtatzeko faktura edo armaren titulartasunaren besterentze agiria.

12.-UDAL KARGA-PUNTUETAN ELEKTRIZITATEA KARGATZEAGATIK PREZIO PUBLIKOA

1.Artikulua.- Objektua

Prezio publikoa ezartzen da karga elektrikoaren horniduragatik, xede horretarako prestatutako udal-kargaguneetan ibilgailu elektrikoak kargatu nahi duten erabiltzaileei.

2. Artikulua.- Zergagaia

Zergapeko egitatea da elektrizitatea kargatzeko zerbitzua ematea, hau da, elektrizitatea konektatzea eta kontsumitzea, eta bide publikoa eta beharrezko azpiegitura erabiltzea.

3.Artikulua.- Subjektu pasiboa eta arduradunak

Udal karga-guneetan ibilgailu elektrikoak kargatzea eskatu eta hala egiten duten erabiltzaileak ordaintzera behartuta daude.

Ibilgailuen jabeak izango dira erantzule subsidiarioak.

4. Artikulua.- Zenbatekoa

Deskargatzeko tarifa 0.25€/kWh-koa izango da.

5. Artikulua.-Salbuespenak

Ordaintzetik salbuetsita daude udalaren jabetzako ibilgailuak.

6. Artikulua.- Sortzapena





Prezio publikoa zerbitzua eskuratzeko eskaera egiten den unean sortuko da.

13.- HAUTAKETA-PROZESUETAN PARTE HARTZEAGATIKO TASAK

1. artikulua.- Zergagaia

Tasaren zergapeko egitatea honako hau da: lehiaketa, oposizio eta lehiaketa-oposizioetara hautagai gisa aurkezteko eskaera egitea, lehiaketa horiek libreak edo mugatuak izan, eta udal honek deialdia egitea, funtzionario edo lan-kontratuko langile gisa hutsik dagoen lanpostua jabetzan edo tartean betetzeko.

2. artikulua.- Subjektu pasiboa

Subjektu pasiboak dira, zergadun gisa, udalbatzak deitutako hautaketa-prozesuetan eta lanpostuak betetzeko prozesuetan hautagai gisa aurkezten diren pertsona fisikoak.

3. artikulua.- Kopurua

Bete beharreko plazari dagokion taldearen arabera zehazten da tarifa:

Taldea	Tarifa
A1	32 euro
A2	26 euro
B	26 euro
C1	19 euro
C2	12 euro
Lanbide-taldea	12 euro

4. artikulua. - Sortzapena:

Tasa eskaera aurkezten den unean sortzen da.

5. artikulua.- Likidazioa eta diru-sarrera

1.- Subjektu pasiboek autolikidazioa egin behar dute, horretarako ezarritako inskripzio-eskaera betez, eta hori egiaztatuta geratu beharko da eskaera aurkezten den unean, eta hori ez da izapidetuko inguruabar hori jaso arte.

2.- Izena emateko eta autolikidatzeko eskabidearekin batera, tasa ordaindu dela egiaztatu beharko da, banku-transferentziaren egiaztagiria edo txartelaren bidezko ordainagiria erantsita herritarren arretarako bulegoan.

3.- Izangaiak tarifa ordaindu izanaren frogagiria gorde beharko du.

4.- Eskabideak aurkezteko epea amaitu ondoren, ez da inola ere onartuko tasa itzultzeko eskaerarik.

14.- PAGAZURI ATERPEA ERABILTZEAGATIKO TASA

1. artikulua.- Zergagaia

Udal honek Zigoitiko udal barrutian dagoen Pagazuri aterpearen erabilera pribatiborako tasa ezarri du.

2. artikulua.- Subjektu pasiboa

Ordenantza honetan araututako tasa ordaindu beharko dute aterpeaz gozatzeko, aterpearen aprobetxamendurako eta aterpearen instalazioak erabiltzeko baimena jaso duten pertsonak edo entitateak.





Irabazi asmorik gabeko elkarteek ez dute tasa ordaindu beharko, betiere Zigoitiko udalerriko elkarten erregistroan izena emanda baldin badaude; eta ezta Zigoitiko udalerrian dauden administrazio batzarrek ere.

3. artikulua.- Kopurua

Instalazioen aprobetxamenduagatiko tasa ondokoa da: 15 euro egunean.

4. artikulua. - Sortzapena:

Tasa eskaera aurkezten den unean sortzen da.

5. artikulua.- Likidazioa eta diru-sarrera

Tasa autolikidazio-araubidean kudeatuko da. Subjektu pasiboek autolikidazioa egin beharko dute derrigorrez. Horretarako, aterpea erabiltzeko eskabidea bete beharko dute, eta hori egiaztatuta egon beharko da eskaera aurkezterakoan. Egiaztatzen ez den bitartean ez da eskaera izapidetuko.

Eskabidea eta autolikidazioa aurkezteaz gain, tasa ordaindu dela egiaztatu beharko da. ~~Horretarako, banku transferentziaren ordainagiria edo herritarrentzako arreta bulegoan txartel bidezko ordainketaren ordainagiria erantsiko dira.~~

15.- UDAL BARATZEAK APROBETXATZEAGATIKO TASA

1. artikulua.- Zergapeko egitatea

Udal honek, udal baratzetarako erabiltzen diren udal lurren aprobetxamendu bereziagatiko tasa ezarri du.

2. artikulua.- Subjektu pasiboa

Ordenantza honetan araututako tasa ordaintzera behartuta daude udal baratzeak gozatzeko, aprobetxatzeko edo erabiltzeko baimenak jasotzen dituzten pertsona edo erakundeak.

3. artikulua.- Zenbatekoa

Tasaren zenbatekoa 60 eurokoa da urte natural bakoitzeko.

Kuota murriztezina izango da, alta berrien kasuan edo baratzeak erabiltzeko epea bukatzen denean izan ezik. Kasu horretan, zergaldia egoera horretara egokituko da, eta, ondorioz, kuota hiruhileko naturalen arabera hainbanatuko da, alta edo kargu-uztea gertatzen den hiruhilekoa barne.

4. artikulua.- Sortzapena:

1. Tasa honela sortuko da:

a. Aprobetxamenduaren lehen urtean, baimena onartzen den unean.

b. Hurrengo urteetan, urte bakoitzeko lehenengo egunean.

2. Tasa honela ordainduko da:

a. Aprobetxamenduaren lehen urtean: legez ezarritako epeetan eta kontzesioan zehaztutako moduan.

b. Hurrengo urteetan, tasa honen errolda edo matrikuletan sartu ondoren, urte naturalen arabera, ordainagiri bidez.

5. artikulua.- Likidazioa eta diru-sarrera

~~Aprobetxamenduaren lehen urtean, baratzea erabiltzeko baimena onartzen den unean likidatuko du tasa Udalak. Subjektu pasiboak behartuta daude autolikidazioa egitera, baratzea erabiltzeko eskaera betez. Hori egiaztatuta geratu beharko da eskaera aurkeztean, eta ez da izapidetuko baldintza hori jaso arte.~~





~~Eskabidea eta autolikidazioa aurkeztearekin batera, tasa ordaindu dela egiaztatu behar da, banku-transferentziaren egiaztagiria edo herritarren arretarako bulegoan txartel bidez ordaindu izanaren egiaztagiria erantsita.~~

Hurrengo urteetan, zerga-bilketaren errolda argitaratuz jakinaraziko da likidazioa.

XEDAPEN GEHIGARRIA

Alkatetzak edozein aldaketa sartu ahal izango du ordenantza honetan, nahitaez aplikatu beharreko lege-aldaketen ondorio baino ez badira eta baldintzak aldatzea edo zenbatekoak edo ehunekoak automatikoki egokitzea badakarte. Aldaketa horien berri berehala emango zaio osoko bilkurari, berrets ditzan.

395/2023 espedientea. Arau subsidiarioen aldaketa puntuala egiteko prozedura abiarazteko irizpena, Muruako 5. sektorean udal-etxebizitza tasatuak egin ahal izateko.

Aldekoa

Bozketa-mota: ohikoa / aho batez

Ikusi da udal-idazkaritzak 2024ko urriaren 15ean egindako txostena; bertan prozeduraren izapidea sustatzeko arrazoiak ondorioztatzen ditu, udal-plangintzako indarreko arau subsidiarioen aldaketa puntuala egiteko:

Tresna-mota:	Zigoitiko udal-plangintzako arau subsidiarioak
Arloa:	Muruako 5. sektorea
Helburua:	Udal-etxebizitza tasatuak eraikitzea

Ikusi da Udaleko Osoko Bilkurari dagokiola onestea; hala agintzen baita Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko ekainaren 30eko 2/2006 Legearen 90. eta 104. artikuluetan, Lurralde-antolamenduko planak eta hirigintza-antolamenduko tresnak onartzeko prozedurak arautzen dituen martxoaren 24ko 46/2020 Dekretuaren 26. eta 36. artikuluetan eta Toki-araubidearen oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 47.2.II) atalean. Hortaz, osoko bilkurak, aho batez, ERABAKI DU:

LEHENENGOA.- Zigoitiko udal-plangintzako arau subsidiarioen aldaketa puntuala egiteko prozedura abiaraztea, Muruako 5. sektoreko udal titulartasuneko partzeletan udal-etxebizitza tasatuak egin ahal izateko.

BIGARRENA.- Arabako Lurralde Historikoko Aldizkari Ofizialean eta Zigoitiko udaleko egoitza elektronikoan argitaratzea arau subsidiarioen aldaketa puntuala egiteko prozeduran herritarrek parte hartzeko programa. Edukia eranskinean jasotzen da.

HIRUGARRENA.- Eusko Jaurlaritzako eta Arabako Foru Aldundiko dagozkion organoei informazio hau eskatzea: arriskuak eta antolamenduak errespetatu beharreko ingurumeneko, ondare kulturalaren babeserako eta ingurune naturaleko baldintzatzaileak.

LAUGARRENA.- Udalerriko Administrazio Batzordeei txosten bat eskatzea Zigoitiko udal-plangintzako arau subsidiarioen aldaketa puntuala egitean aintzat izan beharreko irizpideekin, Euskadiko Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko ekainaren 30eko 2/2006 Legearen 90.2 artikuluan aurreikusitako baldintzetan.

BOSGARRENA.- Alkatetzari eskumena ematea gainerako izapideekin jarraitzeko, plangintzako irizpideak eta helburuak finkatu arte.

ERANSKINA:





MURUAKO 5. SEKTOREAN UDAL-ETXEBIZITZA TASATUAK SUSTATZEKO ZIGOITIKO UDAL-PLANGINTZAN ARAU SUBSIDIARIOEN ALDAKETA PUNTUALA EGITEKO PROZEDURAN HERRITARREK PARTE HARTZEKO PROGRAMA

SARRERA

Herritarrek parte hartzeko programa idatzi da, Muruako 5. sektorean udal-etxebizitza tasatuak sustatzeko Zigoitiko udalerrian arau subsidiarioen aldaketa puntuala egiteko prozesuan herritarrek eta elkarteek parte hartzeko eskubidea bermatzeko.

Eskubide hori bermatzeko hura ahalbidetzen duten mekanismoak definitu eta garatu nahi dira, eta horretarako mekanismoak martxan jartzeko prozedurako faseak ezarri dira. Hori dela eta, aldaketa puntuala prestatzeko, izapidetzeko eta onesteko fase ezberdinak deskribatzen dira dokumentu honetan, herritarrek parte hartzeko jarraian deskribatzen diren mekanismoak fase horietan sartzeko.

PARTE-HARTZEAREN HELBURUAK

Proposatzen den parte hartzeko prozesuaren bidez helburu eta estrategia batzuk erdietsi nahi dira. Honako hauek dira:

- Hirigintza-dokumentuaren publizitatea egitea fase ezberdinetan; izan ere, parte-hartzea hertsiki lotua dago horren publizitate- eta ezagutza-printzipioari. Ezin da parte hartu publizitaterik gabe.
- Herritarrek hirigintza-plangintzaren aldaketa puntualari buruz informazioa eta ezagutza izateko eskubidea bermatzea.
- Herritarrek aldaketa puntualaren sorreran eta izapidetan modu aktiboan parte hartzen dutela sustatzea, eta horretarako partikularren, Udalaren eta idazketa-taldearen arteko informazio-fluxuak ahalbidetzeko bideak ezartzea.
- Herritarrei nagusiki teknikoak den dokumentu bat ulertarazten laguntzea.
- Herritarrek hirigintzaren arloan dituzten nahi, kezkak eta interesak bideratzea.
- Herritarrei plangintza-prozesuan parte hartzeko aukera ematea, eta, hala, proposatzen den lurraldearen okupazio-ereduari eta antolaketa-esparru ezberdinei eragiten dieten proposamen eta neurri partikularrei buruzko iritzia ematea.

INPLIKATUTAKO AGENTEAK

Parte hartzeko metodologia bezain garrantzitsua da prozesuan parte hartuko duten agenteak egoki aukeratzea; izan ere, pertsonen arteko elkarreraginean oinarritutako jarduera da, eta ezberdinak izan daitezkeen ikuspegiak alderatu egiten dira ulertze-klima eta demokrazia parte-hartzaile batean, guztientzat zuzena den konponbide bat lortzeko.

Horiek unean baloratu eta eguneratu behar diren arren, Zigoitiko Udalak planteatutako foro hauek beharko dira:

Herritarren foroa, bi foro hauek barne hartzen dituenak:

- Herritar guztien foroa.
- Kultur Kontseiluaren – Elkarteen foroa.

Foro estrategikoa, bi foro hauek barne hartzen dituena:

- Udal Plangintzako Kontseilu Aholkularia (UPKA).
- Udalaren eta Zigoitiko udalerrien kontzejuaren arteko lankidetzakontseilua.

Beste agente batzuk:

- Udalbatza: udalbatza prozesuko etapa guztietan presente eta jakitun izango den agentea izango da, herritarrek parte hartzeko programaren zehapenean eta





plangintzaren izapidean eta aldaketan duen garrantziagatik.

- Idazketa-taldea: idazketa-taldea baliabideak eta prozesuak bideratzeaz arduratuko da. Horretarako, denboran zehar parte hartzen duten agenteei lehenik prestakuntza emango die eta ondoren ahaldunduko ditu.
- Udal-talde teknikoak.

JARDUKETAK PLANIFIKATZEA

I. fasea: Herritarrek parte hartzeko programa eta aldaketa hasteko erabakia

Udal-talde teknikoak dokumentua behin betiko zehazteko (behin betiko diseinua) parte hartzeko mekanismoak (hasierako diseinua) ezarriko ditu, Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko 2/2006 Legearen 108. artikuluan aurreikusitako moduan. Udalbatza Osoaren erabaki bidez egingo da azken definizioa.

FORO HARTZAILEA	JARDUERA	OHARRAK
Udal-talde teknikoak Udalbatza	Herritarrek parte hartzeko programa egitea	

II. fasea: Aldaketa-proiektua eta ingurumen-ebaluazioa eta ingurumen-dokumentu estrategikoa abiarazteko eskaera

Zigoitiko udal-plangintzako arau subsidiariok aldatzeko proiektua prestatu bitartean, ingurumen-ebaluazioa eta ingurumen-dokumentu estrategikoa abiarazteko eskaera idatziko da. Dokumentu horiek prest daudenean, Udalak aldaketarekin batera bidaliko dizkio ingurumenaren arloko organoari.

FORO HARTZAILEA	JARDUERA	OHARRAK
Herritarrek Estrategikoa	Hitzaldia	Hitzaldia emango da idazketa taldea aurkezteko eta honako alderdi hauek azaltzeko: aldaketa puntuala zer den, Ingurumen Ebaluazio Estrategikoaren prozedura zein den, udalaz gaindiko plangintzaren eraginak, plangintza genero ikuspegitik eta abar. Herritarrek parte hartzeko programaren edukia azalduko da. Aldaketa puntualerako oinarritzko dokumentua erakutsiko da.
Herritarrek Estrategikoa	Web-ataria sortzea	Aldaketa puntuala egiteko prozesuaren atari zehatza sortuko da udal-webgunean eta irekita egongo da behin betiko onespenera eman arte. Prozesuan zehar eguneratuko da.
Herritarrek	Triptikoak buzoietan uztea.	Aukeren proposamenak dituzten triptikoak buzoietan uztea.
Herritarrek	Aukerei buruzko eztabaida.	Herritarren Foroak antolamenduko ereduaren aukerak baloratzeko tailerra.
Udalaren eta Zigoitiko udalerrien kontzejua arteko lankidetzak-kontseilua	Aukerei buruzko eztabaida.	Kontzejuek antolamenduko ereduaren aukerak baloratzeko tailerra
Udal-talde teknikoak Idazketa taldea	Ondorioen txostena eta ideia eta iradokizunen proposamena	Proiektua behin betiko idazteko oinarritzko dokumentua
Herritarrek Estrategikoa	Webguneko agiriak eguneratzea	
Udal Plangintzako Kontseilu Aholkularia	Txostena bidaltzea	
Udal-talde teknikoak Idazketa taldea	Laburpen-txostena	Fase honetako parte hartzeko prozesuaren ondorioen txostena.

III. fasea: Hasierako onspena, jendaurrean jartzea eta behin-behineko eta behin betiko onspena

FORO HARTZAILEA	JARDUERA	OHARRAK
Herritarrek Estrategikoa	Informazio-puntua	Informazio-puntu fisikoa sortzea hirigunean, langile batek hasierako onspeneko dokumentuaren proposamena azaldu dezan jendaurrean jartzeko fasean eta herritarren balizko alegazioak jaso dituzan. Arkitektoa eta/edo aholkulari juridikoa egongo da bertan.
Udal-talde teknikoak Idazketa taldea	Laburpen-txostena	Fase honetako parte hartzeko prozesuaren ondorioen txostena.
Herritarrek Estrategikoa	Webguneko agiriak eguneratzea	





251/2024 espedientea. Eguneko Arretarako Landa Zentroa kudeatzeko zerbitzuaren lizitaziorako espedientea eta agiriak onesteko irizpena

Aurkakoa

Bozketa-mota: Izenduna
Alde: 4; aurka: 5; abstentzioak: 0

Aldekoak

JAVIER GORBEÑA GARCÍA (EAJ- PNV)
MAITE COBO BARCALA (EAJ- PNV)
IÑIGO GRACIANTEPARALUCETA LOPEZ DE IPIÑA (EAJ- PNV)
BEGOÑA GARCÍA LÓPEZ (EAJ- PNV)

Aurkakoak

AINHOA FERNÁNDEZ DOMINGUEZ (EH BILDU)
XABIER NAFARRATE CADIÑANOS (EH BILDU)
MIKEL ISASMENDI TXURRUKA (EH BILDU)
MAIALEN BERGARA SÁEZ DE CÁMARA (EH BILDU)
ELISABETH OCHOA DE ERIBE ROMÁN (PP)

Abstentzioak

Maialen Bergara Sáez de Cámara zinegotziak Eguneko Arretarako Landa Zentroaren kudeaketa-kontratuari lotuta EH BILDU udal-taldearen jarrera justifikatzen duen testua irakurri du:

“EH Bildutik EALZko langileei lanaldi erdia areagotu behar zaiela uste dugu.

Duela gutxi gizarte-langileak lanaldia areagotzeko eskatu du. Eskaera baztertzeko arrazoi nagusia izan da zerbait puntuala dela, baina zentroko langileekin hitz egin ondoren jakin dugu duela urtebete baino gehiago ordubete lehenago sartzeko eskatu zutela administrazio-lanak egin ahal izateko.

Arlo sozio-sanitarioan prebentzioa oso garrantzitsua da. Ez dute neke- edo estres-momentu bat igaro behar, langileek duela gutxi bizitako moduan, konponbideak bilatzeko. Zuhurrak izan behar dugu; pertsonen buruz ari gara, ez materialei buruz.

Duela urtebete baino gehiago zentroa beteta dago. Egun bi pertsona daude itxarote-zerrendan. Horri gehitu behar diogu gure populazioa gero eta zaharragoa dela. 2014an % 15,18 ziren 65 urtetik gorakoak. 2023an, 9 urte geroago, % 7,5 igo da, hau da, % 22,6ra. Eta kurbak goranzkoa izaten jarraitzen du. Hortaz, okupazioak behera egiteko aukera oso txikia da.

Aurkeztu zenuten beste arrazoietako bat izan zen erabiltzaileak 11:30ean iristen direla, eta, hortaz, 11:00etatik 11:30era lan horiek egiteko denbora daukatela. Horrek ere ez digu balio. 11:00etan irekitzen da zentroa eta erabiltzaile batzuk ez dira autobusez joaten. Hortaz, ordu horretarako erabiltzaileak irits litezke, eta hori arrazoi nahikoa da janaria prestatzeko, jarduerak antolatzeko, txostenak idazteko eta abar egiteko denbora nahikorik ez izateko.

Langileek zeregin hauek dituzte: higieneko zaintza pertsonalak, arropa garbitzea/lisatzea, janaria prestatzea/jantoki zerbitzua, mugikortasuna mantentzeko jarduera fisikoa, aisialdiko jarduerak, medikamentuak hartzen dituztela ikuskatzea eta, hala behar izanez gero, horiek hartzen laguntzea. 1. mailako mendekotasuna duten erabiltzaileek jarduera horiek egiteko laguntza behar dute, eta, hortaz, hiru langileren artean egin behar dituzte lanak, egungo ratioa 6-7 erabiltzaile/langile baita.

Baina beste zeregin batzuk ere badituzte, hala nola elikagaiak erostea, menuak prestatzea, aurreikusitako gabeko egoerarako erantzun posibleak garatzea, zentroko erabiltzaileen beharrak eta aukerak aztertzea eta detektatzea, eguneroko bizitza animatzeko eta aktibatzekeko estrategiak diseinatzea eta garatzea, eguneroko bizitako alderdi positiboak garatzea, talde-lana diseinatzea eta garatzea, profesionalekin eta inplikaturako beste pertsona batzuekin koordinatzea eta zaintza lan-planetan sartzea.

Erabiltzaileek ere esaten dute idazkari bat kontratatu beharko litzatekeela, eta hori ere arrazoizko pisua iruditzen zaigu.

EH Bilduren helburua beti da pertsonak erdigunean jartzea. Herritar zaurgarrienak zaintzea eta horiek zaintzen dituzten pertsonak ere bai. KALITATEzko arreta eman behar da. Lortu behar dugu baliabide hori, beste udalerrri batzuetan ere nahiko luketena, bikaina izaten jarraitzea.

Milioika euro gastatu ditugu obretan, eraikinetan, eta ezin dugu onartu gure adinekoek zaintzen kalitaterik onena izateari uztea urtean 20.000 eurogatik.

Horregatik, pertsona bat lanaldi erdian kontratatzea proposatzen dugu, une batzuetan beste bi esku gehiagorekin beharrak hobeto estaliko direla uste dugulako. Gainera txangoen arazoa konponduko litzateke.





Konponbidea ez bada onartzen langile faltagatik, noizbait arrazoitu duzuen moduan, dagoeneko kontratatutako langileen jardunaldia areagotzea proposatzen dugu, 10:00etan lanean hasteko eta ordu horretatik aurrera janaria prestatzeko, jarduerak antolatzeko, txostenak idazteko..., hala, egunean zehar gure adinekoekin egon daitezten.

Alkate jaunak azaldu du txango batean arazo bat egon zela: erabiltzaile bat despistatu egin zen eta galduta egon zen hainbat orduz. Egungo agirian arazo hori konpondu nahi da, txangoetarako beste pertsona bat gehitzen delako. Hainbat zerbitzu aurreikusten diren arren, horietako asko ez dira egiten, hala nola arropa garbitzea eta lisatzea. Azaldu du bere udal-taldeak ere pertsonen kudeaketa erdigunean jartzen duela. Duela bost urteko lizitazioan bi arduraldi eta erditik hirura areagotu zuten, erabiltzaileei arreta emateko. Egungo gehieneko edukiera berdina zen orduan ere, hau da, 20 pertsona. Horrez gain, uste du egungo arreta-ordutegitik kanpo langileen arduraldia ordubetez areagotzea ez dela neurri eraginkorra arreta hobetzeko.

Elisabeth Otsoa de Eribe Román zinegotziak esan du bi ikuspegiak ulertzen dituela, baina langileek denbora gehiago eskatzen badute, arrazoiak izango dituztela. Azaldu du 1. mailako mendekotasuna duten pertsonak 0 mailako desgaitasuna dutenek baino behar gehiago dituztela, eta arduraldia areagotzearen alde dago langileen presioa murrizteko, herritarrek zahartzen ari direla aurreikusita.

Alkateak jaunak Eguneko Arretarako Landa Zentroa kudeatzeko kontratuaren lizitazioa onesteari buruzko irizpena bozkatzeko eskatu du, eta boto hauekin onetsi gabe geratu da:

- **Aldeko botoak: 4 boto**, JAVIER GORBEÑA GARCÍA (EAJ- PNV), MAITE COBO BARCALA (EAJ- PNV), IÑIGO GRACIANTEPARALUCETA LOPEZ DE IPIÑA (EAJ- PNV), BEGOÑA GARCÍA LÓPEZENak (EAJ- PNV).
- **Aurkako botoak: 5 boto**, AINHOA FERNÁNDEZ DOMINGUEZ (EH BILDU), XABIER NAFARRATE CADIÑANOS (EH BILDU), MIKEL ISASMENDI TXURRUKA (EH BILDU), MAIALEN BERGARA SÁEZ DE CÁMARA (EH BILDU) eta ELISABETH OCHOA DE ERIBE ROMÁNenak (PP).
- **Abstentzioak: 0 boto.**

600/2023 espedientea. Musika-eskola birgaitzeko obra egikaritzeko proiektua onesteko proposamena

Alkate jaunak adierazi du proiektua duela gutxi sartu dela Udaleko sarrera-erregistroan, eta azkarregi dela saio honetan bozkatzea; beraz, hurrengo hilabetean eztabaidatzea proposatu du.

541/2024 espedientea. Hizkuntza-prestakuntzaren eta -normalizazioaren arloan IVAPekin lankidetzeta-hitzarmena onesteko irizpena

Aldekoa	Bozketa mota: Izenduna Alde: 7; aurka: 0; abstentzioak: 1
Aldekoak	JAVIER GORBEÑA GARCÍA (EAJ-PNV) MAITE COBO BARCALA (EAJ- PNV) IÑIGO GRACIANTEPARALUCETA LOPEZ DE IPIÑA (EAJ- PNV) AINHOA FERNÁNDEZ DOMINGUEZ (EH BILDU) XABIER NAFARRATE CADIÑANOS (EH BILDU) MIKEL ISASMENDI TXURRUKA (EH BILDU) MAIALEN BERGARA SÁEZ DE CÁMARA (EH BILDU)
Aurkakoak	-





Abstentzioak

ELISABETH OCHOA DE ERIBE ROMÁN (PP)

Aztertu da hizkuntza-prestakuntzaren eta -normalizazioaren arloan Administrazio Publikoaren Euskal Institutuarekin (IVAP) eta Euskal Autonomia Erkidegoko erakunde publikoekin sinatutako lankidetz hitzarmena (Zigoitiko Udalaren eta Administrazio Publikoaren Euskal Institutuaren artean).

Udalbatzak, gehiengoz, honako hau ERABAKI DU:

LEHENENGOA. Onestea hizkuntza-prestakuntzaren eta -normalizazioaren arloan Administrazio Publikoaren Euskal Institutuaren (IVAP) eta Zigoitiko Udalaren arteko lankidetz hitzarmena. Testua erabakiari atxiki zaio.

BIGARRENA. Alkate jaunari eskumenak ematea hitzarmena formaliza dezan.

HIRUGARRENA. Erabaki honen berri ematea Administrazio Publikoaren Euskal Institutuari (IVAP), dagozkion ondorioak izan ditzan, eta lankidetz hitzarmena formalizatzea.

ERANSKINA

hitzarmena, Administrazio Publikoaren Euskal Institutuaren (IVAP) eta Euskal Autonomia Erkidegoko Herri-Erakundearen artekoa, hizkuntza-prestakuntza eta normalizazioaren arloan izenpetzekoa (Zigoitiko Udalaren eta Administrazio Publikoaren Euskal Institutuaren artekoa).

Parte hartzen dute:

Alde batetik, Nagore Alberdi Berasaluze Zenekorta andreak, Administrazio Publikoaren Euskal Institutuko Koordinazio eta Kudeaketako idazkari eta ordezkari gisa, eta bestetik, Javier Gorbeña Garcia jaunak, Zigoitiko Udaleko alkate eta ordezkari gisa.

Adierazten dute:

Elkarri nortasun juridikoa aitortzen diotela hitzarmen hau izenpetzeko, eta beronen helburua dela sinatzaile den herri-erakundeko enplegatu publikoek hizkuntza-prestakuntzako ikastaroetara joateko aukera izatea.

Oinarri juridikoak:

Lehenengoa. 10/1982 Legeak (Euskararen Erabilpena Arauzkatzeko Oinarrizko Legeak) aitortzen du herritar orok eskubidea duela euskara nahiz gaztelania erabiltzeko herri-administrazioarekiko harremanetan, eta, ondorioz, administrazioari agintzen dio eskubide hori gauza dezan.

Bigarrena. Abenduaren 1eko 11/2022 Legeak (Euskal Enplegu Publikoarena), hizkuntza-normalizazioari buruzko tituluan, 10/1982 Legean ezarritako printzipio eta tresnak biltzen ditu. Legeak, halaber, hizkuntza-eskakizunak xedatzen ditu; horrela, Euskal Autonomia Erkidegoko herri-administrazioetako lanpostuak betetzeko prozesuetan eta, oro har, hautaketa-prozesuetan, irizpide objektiboak izango dira euskara-maila baloratzeko.

Hirugarrena. Maiatzaren 4ko 133/2021 Dekretuak IVAPen egitura eta eginkizunak arautzen ditu; zehaztuz, 16. artikuluko 2.a. atalean, Hizkuntza Prestakuntzaren arloari dagokiola, besteak beste, «Foru-administrazioekin, toki-administrazioekin eta Euskal Autonomia Erkidegoko beste ente batzuekin hizkuntza-normalizazioaren arloko lankidetz hitzarmenak egitea».

Laugarrena. Ogasun eta Herri Administrazio sailburuaren 2005eko azaroaren 30eko Aginduaren bidez (aurrerantzean 2005eko azaroaren 30eko Agindua), Administrazio Publikoaren Euskal Institutuak Euskal Autonomia Erkidegoko herri-erakundeei eskainiko dien hizkuntza-prestakuntzako zerbitzua arautzen da (halaber, aginduaren bidez ezartzen dira euskara-ikastaroetara doazen udal-langileak ordezkatzeko dirulaguntzen arauak).

Bosgarrena. Otsailaren 22ko 19/2024 Dekretuak (Euskal Sektore Publikoan euskararen erabilera normalizatzea) 86/1997 Dekretua (apirilaren 15koa, Euskal Autonomia Elkarteko





herri-administrazioetan euskararen erabilera normalizatzeko prozesua arautuko duena) indargabetzen du, eta, halaber, egokitzapen-aldia ezartzen du IVAPentzat -laugarren xedapen iragankorreko 7. puntuan-, adieraziz, «2025eko urtarrilaren 1era arteko epea izango duela dekretu honetan jasotako aurreikuspenetara egokitzeko». Hori horrela, eta egokitzapen hori eman artean, dekretuko 5. artikuluko 3. puntuan xedatutakoak ez du efekturik izango hitzarmen honetan.

Klausulak:

Lehena. Zigoitiko Udalak onartuta dauka hizkuntza-normalizaziorako plana; aplikagarri den araubideari jarraikiz, hizkuntza-normalizaziorako plana izatea bete beharreko baldintza baita, lankidetzeta-hitzarmena izenpetzearekin batera.

Bigarrena. Administrazio Publikoaren Euskal Institutuak eta Zigoitiko Udalak erabaki dute lankidetzan aritzea azken erakunde horren hizkuntza-normalizazioko lanetan. Hitzarmen honen helburua da euskara-ikastaroak antolatzea; hain zuzen, euskalduntze/alfabetatzeko eta 4. hizkuntza-eskakizunari dagokion hizkuntza-prestakuntzako ikastaroak.

- Administrazio Publikoaren Euskal Institutuak Zigoitiko Udalaren esku jartzen ditu 2005eko azaroaren 30eko Aginduaren I. kapituluan jasotako hizkuntza-prestakuntzako zerbitzuak.
- 2005eko azaroaren 30eko Aginduaren seigarren artikularen 3. paragrafoan ezarritako parametroen arabera zehaztutako ordu-kreditua izango du langile bakoitzak.
- Alderdi biek ezagutzen dituzte 2005eko azaroaren 30eko Aginduaren III. kapituluan datu pertsonalak babesteari buruz aipatzen diren xedapenak, eta hitz ematen dute bete egingo dituztela.
- Zigoitiko Udalak, hitzarmen hau izenpetzearen ondorioz, onartu egiten ditu 2005eko azaroaren 30eko Aginduko hizkuntza-prestakuntzako zerbitzuak jaso ahal izateko baldintzak.

Hirugarrena. Hitzarmen honen indarraldia lau urtekoa izango da, sinatzen denetik kontatzen hasita. Alderdiek berariaz erabaki ahal izango dute hitzarmena beste lau urtez luzatzea edo azkentzea.

Laugarrena. Hitzarmen hau bertan behera uzteko nahia adieraz lezake aldeetako edozeinek, bere aldetik, eta, hala eginez gero, bermatu egin beharko da hasitako jarduerak amaitu egingo direla. Nahi hori adierazi eta handik hiru hilabetetara amaituko da hitzarmenaren indarraldia.

Eta adostasun frogatzat, alde biek sinatzen dute hitzarmen hau, sinadura elektronikoaren datan.

76/2024 espedientea. Emandako dirulaguntza justifikatzeko Muruako Administrazio Batzarrak eskatutako luzapena onesteko irizpena

Aldekoa

Bozketa mota: ohikoa/aho batez

Aztertu da Udalbatza honen Osoko Bilkurak 2024ko irailaren 20an hartutako erabakia, zeinaren bidez onetsi baitzen 62.101,49 €-ko dirulaguntza ematea Muruako Administrazio Batzarrari, gizarte-zentroari atxikitako ataripe itxi bat eraikitzeko. Egikaritze-aurrekontua





103.502,49 eurokoa zen, BEZa barne.

2024ko urriaren 11n, Muruako Administrazio Batzarrak diruz lagundutako obra egikaritzeko eta justifikatzeko luzapenaren eskaria aurkeztu zuen. Honako arrazoi hauek alegatu zituen:

“Muruako Administrazio Batzarrak, obraren kostu zenbatetsia ahalik eta gehien diruz laguntzeko, 2024an bi laguntza eskatu zituen:

- *Zigoitia udalerriko kontzejuentzako laguntzak.*
- *EREIN laguntza – Euskal Autonomia Erkidegoko landa-eremuak sustatzeko eta garatzeko laguntzak.*

Hori dela eta, erabaki zen obra ez hastea bi dirulaguntzak eman zitzaizkigula bermatu arte.

- Erein laguntza 2024ko irailaren 16an ebatzi zen eta eskatutako laguntza eman zitzaigun.

Azken laguntza hori emateko ebazpenaren unean, dagozkion izapideak abiarazi genituen obrak berehala egikaritzen hasi eta 2024. urtearen amaieran amaitu ahal izateko. Baina EREIN laguntzaren ebazpena eman zenetik oso epe laburra dugunez, ezinezkoa zaigu lizitazioa ateratzea, legeak ezartzen duen epea itxarotea eta obra osoa 2024ko abenduaren 31 baino lehen egitea; izan ere, soilik obra egikaritzeko hiru hilabete beharko ditugu, gutxi gorabehera”.

Aztertu da kontzejuei dirulaguntzak emateko oinarriak arautzen dituen Ordenantza espezifikoa 7. artikulua, justifikazio-moduari eta -epearri buruzkoa. Ordenantza horrek honela dio hitzez hitz: *“Dirulaguntza ematen duen organoak, justifikazioa aurkezteko epea luzatzea erabaki dezake. Luzapena ez da 3 hilabete baino gehiagokoa izango, eta, betiere, ezingo ditu hirugarren baten eskubideak urratu”.*

Indarrean dagoen legeriak emandako eskumenak baliatuta, Udalbatzak, aho batez, honako hau ERABAKI DU:

LEHENENGOA. Muruako Administrazio Batzarrari epea luzatzea, gehienez ere hiru hilabetez, gizarte-zentroari atxikitako ataripe itxi bat eraikitzeke obraren justifikazioa aurkezteko. Obra hori diruz lagundu da kontzejuentzako dirulaguntzen 2024. urteko deialdiaren barruan.

BIGARRENA. Erabaki horren berri ematea Muruako Administrazio Batzarri, dagozkion ondorioak izan ditzan, eta Udalbatzaren Osoko Bilkurari hurrengo bilkuran, horren berri izan dezaten eta dagozkion ondorioak izan ditzan.

477/2023 espedientea. Zinegotzi ordezkarien arduraldia eta ordainsariak aldatzeko irizpena

Aldekoa	Bozketa mota: ohikoa/aho batez
Alkate jaunak zinegotzi ordezkarien arduraldiak eta ordainsariak honela aldatzea proposatu du:	
Lehenengo alkateordea eta Kultura, Kirol, Euskara, Hezkuntza, Ingurumen, Nekazaritza eta Mendi Saileko zinegotzi ordezkaria:	
arduraldiaren % 35 eta urteko 15.545,25 €-ko ordainsaria.	
Gizarte Ongizate, Lankidetzeta, Komunikazio eta Bizikidetzeta Saileko zinegotzi ordezkaria:	
arduraldiaren % 20 eta urteko 8.883,00 €-ko ordainsaria.	
Zinegotzi ordezkarien arduraldiaren eragin-data izendapenaren data izango da, eta	

Cód. Validación: 4CN37C26NPSSJSXO5FSPMG7QJ
Verificación: <https://zigoitia.ecoizatelektronikoa.eus/>
Documento firmado electrónicamente desde la plataforma esPublico Gestiona | Página 31 de 42





aurreikusten da 2024ko urriaren 29an onartuko dela Alkatetza Dekretu bidez.

Gobernu Taldeko gainerako zinegotziek ez dute ez arduraldi osoa, ez partziala izango; aitzitik, Udalbatzaren bilkuretara, batzordeetara eta kide anitzeko beste organo batzuetara joateagatik ordainduko zaie.

Aztertu da idazkariaren 2024ko urriaren 16ko txostena, eta 2023-2027 agintaldian zinegotzien ordainsariei eta arduraldi-araubideari buruzko irizpena bozkatu da. Aho batez onartu da, eta honela dio hitzez hitz:

LEHENENGOA. Izendapenaren egunetik aurrerako ondorioak izango dituzten arduraldi eta ordainsari hauek onestea:

- Lehenengo alkateordea eta Kultura, Euskara, Hezkuntza, Ingurumena, Nekazaritza eta Mendiak Saileko zinegotzi ordezkaria: lanaldiaren % 35 eta 15.545,25 € gordin urtean.
- Gizarte Ongizate, Lankidetzeta, Komunikazio eta Bizikidetzeta Saileko zinegotzi ordezkaria: lanaldiaren % 20 eta 8.883,00 € gordin urtean.

BIGARRENA. Arduraldi partzialei dagokienez, erantzukizun horiei benetan eskainitako denboragatik ordainduko zaie. Alta emango zaie Gizarte Segurantzaren Erregimenean, eta ezingo dute kalte-ordainik jaso osoko bilkuretara, batzordeetara eta abarretara joateagatik.

HIRUGARRENA. 2023ko ekitaldirako Aurrekontua Betearazteko Arauaren IV. tituluko III. kapituluko 26., 27. eta 29. kapituluak, Udalbatzako kideen ordainsariei buruzkoak, aldatzea, erabaki honen 1. puntuaren arabera.

473/2023 espedientea. Kide anitzeko organoetan ordezkariak aldatzeko irizpena.

Aldekoa

Bozketa mota: ohikoa/aho batez

Errege Dekretuaren 29. artikulua araberan, *“talde politikoei dagokie, bozeramaileak Presidenteari bidalitako idazki baten bidez eta erregelamendu honetan kasu bakoitzean aurreikusitako baldintzetan, Udalbatzako talde politikoetako kideek osatutako kide anitzeko organo guztietako kideak izendatzea”*.

Dekretu horren 38. artikulua araberan, eratze-bilkura egin eta hurrengo hogeita hamar eguneko epean, alkateak Udalbatzaren Osoko Bilkuraren behar diren ezohiko bilkuretarako deia egingo du, *“Osoko Bilkuraren eskumenekoak diren kide anitzeko organoetan Udalbatzaren ordezkariak izendatzeko”*.

Udalbatza berria 2023ko ekainaren 17an eratu ondoren, Osoko Bilkuraren 2023ko ekainaren 29ko erabaki bidez kide anitzetako ordezkarien izendapena onetsi zen.

Eduardo Lorza García zinegotziak uko egin dio bere karguari eta horren berri 2024ko uztailaren 27ko osoko bilkuran jaso dute. Maialen Bergara Sáez de Cámara zinegotziak ordeztuko du karguan, zeina 2024ko irailaren 20an jabetu den karguaz.

Era berean, 2024ko uztailaren 29an, Carlos Alberto Iturrioz Malaina zinegotziak uko egin dio zinegotzi-karguari eta horren berri 2024ko irailaren 20ko osoko bilkuran jaso dute. Begoña García López andreak ordeztuko du karguan, zeina 2024ko urriaren 28ko osoko bilkuran jabetu den karguaz.

Ikusi da beharrezkoa dela kide anitzeko organoetan udal-ordezkarien izendapena aldatzea, Udalbatzaren eraketan bat-bateko aldaketak izan baitira.

Aztertu da EH BILDU eta EAJ-PNV udal-taldearen proposamena; beraz, Udalbatzak, aho batez, honako hau ERABAKI DU:





LEHENENGOA. Onestea kide anitzeko organoetan udal-ordezkarien izendapena, erabaki honen eranskinean jasota dagoen bezala.

BIGARRENA. Osoko Bilkura honek izendatutako ordezkarien berri ematea aldatetak eragindako kide anitzeko organoei.

ERANSKINA

1.- GORBEIALDEKO KUADRILLA:

- JAVIER GORBEÑA GARCÍA jn., Zigoitiko Udaleko alkatea, EAJ-PNV talde-politikokoa.
- XABIER NAFARRATE CADIÑANOS jn., EH-BILDU talde politikoko zinegotzia.
- MIKEL ISASMENDI TXURRUKA jn., EH-BILDU talde politikoko zinegotzia.

2.- ZIGOITIKO UR PARTZUERGOA:

Batzar Nagusirako eta Gobernu Batzarrerako:

- JAVIER GORBEÑA GARCÍA jn., Zigoitiko Udaleko alkatea, EAJ-PNV talde-politikokoa.
- IÑIGO GRACIANTEPARALUCETA LOPEZ DE IPIÑA jn., EAJ-PNV talde politikoko zinegotzia.
- MIKEL ISASMENDI TXURRUKA jn., EH-BILDU talde politikoko zinegotzia.

Ordezkoak:

- BEGOÑA GARCIA LOPEZ and., EAJ-PNV talde politikoko zinegotzia.
- MAITE COBO BARCALA and., EAJ-PNV talde politikoko zinegotzia..
- XABIER NAFARRATE CADIÑANOS jn., EH-BILDU talde politikoko zinegotzia.

3.- GORBEIAKO PARKE NATURALEKO PATRONATUA:

- IÑIGO GRACIANTEPARALUCETA LOPEZ DE IPIÑA jn., EAJ-PNV talde politikoko zinegotzia.

Ordezkoa:

- BEGOÑA GARCIA LOPEZ and., EAJ-PNV talde politikoko zinegotzia.

5.- ESKOLA KONTSEILUA:

- IÑIGO GRACIANTEPARALUCETA LOPEZ DE IPIÑA jn., EAJ-PNV talde politikoko zinegotzia.

Ordezkoa

- MAITE COBO BARCALA and., EAJ-PNV talde politikoko zinegotzia.

6.- GORBEIAKO INGURUEN LANDA GARAPENeko ELKARTEA:

- JAVIER GORBEÑA GARCÍA jn., Zigoitiko Udaleko alkatea, EAJ-PNV talde-politikokoa.

Ordezkoa:

- IÑIGO GRACIANTEPARALUCETA LOPEZ DE IPIÑA jn., EAJ-PNV talde politikoko zinegotzia.





7.- EUSKAL FONDOA:

- IÑIGO GRACIANTEPARALUCETA LOPEZ DE IPIÑA jn., EAJ-PNV talde politikoko zinegotzia.

Ordezkoa:

- JAVIER GORBEÑA GARCÍA jn., Zigoitiko Udaleko alkatea, EAJ-PNV talde-politikokoa.

8.- SAN ANTONIO DE PADUA KOMUNITATEA:

- IÑIGO GRACIANTEPARALUCETA LOPEZ DE IPIÑA jn., EAJ-PNV talde politikoko zinegotzia.

Ordezkoa:

- BEGOÑA GARCIA LOPEZ and., EAJ-PNV talde politikoko zinegotzia.

9.- KULTURA KONTSEILUA:

- IÑIGO GRACIANTEPARALUCETA LOPEZ DE IPIÑA jn., EAJ-PNV talde politikoko zinegotzia.
- XABIER NAFARRATE CADIÑANOS jn., EH-BILDU talde politikoko zinegotzia.
- ELISABETH OCHOA DE ERIBE ROMÁN and., PP talde politikoko zinegotzia.

Ordezkoa:

- MAITE COBO BARCALA and., EAJ-PNV talde politikoko zinegotzia.
- MAIALEN BERGARA SÁEZ DE CÁMARA and., EH-BILDU talde politikoko zinegotzia.

10.- LESPEA KOMUNITATEA:

- JAVIER GORBEÑA GARCÍA jn., Zigoitiko Udaleko alkatea, EAJ-PNV talde-politikokoa.

Ordezkoa:

- IÑIGO GRACIANTEPARALUCETA LOPEZ DE IPIÑA jn., EAJ-PNV talde politikoko zinegotzia.

11.- GOPEGI-ONDATEGIKO SAUR-2KO GARAJEEN ETA GOPEGIKO URISOLO KALEKO GIZARTE-LAGUNTZAKO ETXEBIZITZEN JABEEN KOMUNITATEAK:

- JAVIER GORBEÑA GARCÍA jn., Zigoitiko Udaleko alkatea, EAJ-PNV talde-politikokoa.

Ordezkoa:

- IÑIGO GRACIANTEPARALUCETA LOPEZ DE IPIÑA jn., EAJ-PNV talde politikoko zinegotzia.

12.- EHIZA BARRUTIA:

- IÑIGO GRACIANTEPARALUCETA LOPEZ DE IPIÑA jn., EAJ-PNV talde politikoko zinegotzia.





- XABIER NAFARRATE CADIÑANOS jn., EH-BILDU talde politikoko zinegotzia.

Ordezkoa:

- JAVIER GORBEÑA GARCÍA jn., Zigoitiko Udaleko alkatea, EAJ-PNV talde-politikokoa.
- MIKEL ISASMENDI TXURRUKA jn., EH-BILDU talde politikoko zinegotzia.

13.- KUTXABANK:

- JAVIER GORBEÑA GARCÍA jn., Zigoitiko Udaleko alkatea, EAJ-PNV talde-politikokoa.

Ordezkoa:

- IÑIGO GRACIANTEPARALUCETA LOPEZ DE IPIÑA jn., EAJ-PNV talde politikoko zinegotzia.

14.- ELKARKIDETZA:

- JAVIER GORBEÑA GARCÍA jn., Zigoitiko Udaleko alkatea, EAJ-PNV talde-politikokoa.

Ordezkoa:

- IÑIGO GRACIANTEPARALUCETA LOPEZ DE IPIÑA jn., EAJ-PNV talde politikoko zinegotzia.

15.- HAURRESKOLAREN JARRAIPEN BATZORDEA:

- IÑIGO GRACIANTEPARALUCETA LOPEZ DE IPIÑA jn., EAJ-PNV talde politikoko zinegotzia.

Ordezkoa:

- BEGOÑA GARCIA LOPEZ and., EAJ-PNV talde politikoko zinegotzia.

16.- KALEAK GARBITZEKO, LORATEGIAK MANTENTZEKO ETA ELURRA GARBITZEKO UDALAREN ETA KONTZEJUEAN ARTEKO LANKIDETZA HITZARMENAREN JARRAIPEN BATZORDEA:

- JAVIER GORBEÑA GARCÍA jn., Zigoitiko Udaleko alkatea, EAJ-PNV talde-politikokoa.
- AINHOA FERNÁNDEZ DOMÍNGUEZ and., EH-BILDU talde politikoko zinegotzia.
- ELISABETH OCHOA DE ERIBE ROMÁN and., PP talde politikoko zinegotzia.

Ordezkoak:

- IÑIGO GRACIANTEPARALUCETA LOPEZ DE IPIÑA jn., EAJ-PNV talde politikoko zinegotzia.
- MIKEL ISASMENDI TXURRUKA jn., EH-BILDU talde politikoko zinegotzia.

17.- GORBEIALDEKO KUADRILLAREN GENERO-INDARKERIAREN BIKTIMAK ARTATZEKO ETA JARDUTEKO PROTOKOLOA KOORDINATZEKO TALDEA:

- MAITE COBO BARCALA and., EAJ-PNV talde politikoko zinegotzia.

Ordezkoa:

- JAVIER GORBEÑA GARCÍA jn., Zigoitiko Udaleko alkatea, EAJ-PNV talde-politikokoa.





18.- ABELTZAINZA BATZORDEA:

- IÑIGO GRACIANTEPARALUCETA LOPEZ DE IPIÑA jn., EAJ-PNV talde politikoko zinegotzia.
- XABIER NAFARRATE CADIÑANOS jn., EH-BILDU talde politikoko zinegotzia.

Ordezkoak:

- JAVIER GORBEÑA GARCÍA jn., Zigoitiko Udaleko alkatea, EAJ-PNV talde politikokoa.
- MAIALEN BERGARA SÁEZ DE CÁMARA and., EH-BILDU talde politikoko zinegotzia.

19.- HAUR HEZKUNTZAKO ETA LEHEN HEZKUNTZAKO IKASLEENTZAKO ESKOLAZ KANPOKO JARDUERAK ETA JARDUERA OSAGARRIAK ANTOLATZEN LAGUNTZEKO GORBEIA ESKOLAKO IKASLEEN GURASOEN GORBEIA ELKARTEAREN ETA ZIGOITIKO UDALAREN ARTEAN SINATUTAKO HITZARMENAREN JARRAIPEN BATZORDEA:

- JAVIER GORBEÑA GARCÍA jn., EAJ-PNV talde politikoko alkate-udalburua.
- XABIER NAFARRATE CADIÑANOS jn., EH-BILDU talde politikoko zinegotzia.
- ELISABETH OCHOA DE ERIBE ROMÁN and., PP talde politikoko zinegotzia.

20.- MURGIAKO BHIko BIDELAGUNA PROGRAMAN PARTE HARTZEN DUTEN ZIGOITIKO IKASLEEN GARRAIO-GASTUA DIRUZ LAGUNTZEKO MURGIAKO BHIko BAIALDEA GURASOEN ELKARTEAREN ETA ZIGOITIKO UDALAREN ARTEAN SINATUTAKO LANKIDETZA-HITZARMEN ADMINISTRATIBOAREN JARRAIPEN BATZORDEA:

- JAVIER GORBEÑA GARCÍA jn., EAJ-PNV talde politikoko alkate-udalburua.
- XABIER NAFARRATE CADIÑANOS jn., EH-BILDU talde politikoko zinegotzia.
- ELISABETH OCHOA DE ERIBE ROMÁN and., PP talde politikoko zinegotzia.

21.- DURANAko IKASBIDEA IPIko BIDELAGUNA PROGRAMAN PARTE HARTZEN DUTEN ZIGOITIKO IKASLEEN GARRAIO-GASTUA DIRUZ LAGUNTZEKO IKASBIDEA IPIko ITURRIBERO GURASOEN ELKARTEAREN ETA ZIGOITIKO UDALAREN ARTEAN SINATUTAKO LANKIDETZA-HITZARMEN ADMINISTRATIBOAREN JARRAIPEN BATZORDEA:

- JAVIER GORBEÑA GARCÍA jn., EAJ-PNV talde politikoko alkate-udalburua.
- XABIER NAFARRATE CADIÑANOS jn., EH-BILDU talde politikoko zinegotzia.
- ELISABETH OCHOA DE ERIBE ROMÁN and., PP talde politikoko zinegotzia.

B) KONTROL JARDUERA

475/2023 espedientea. Osoko Bilkurari lehenengo alkateordearen izendapenaren berri ematea





Alkate jaunak alkateordearen izendapenen berri eman du. Izendapen hori 2024ko urriaren 16ko 452 zenbakiko Alkatetzaren Ebazpenaren bidez onartu zen. Honela dio hitzez hitz:

Aztertu dira 2023ko maiatzaren 28an egindako udal-hauteskundeetan lortutako emaitzak, eta 2023ko ekainaren 17an Toki Udalbatza berria eratzeko bilkura egin zen.

Aztertu da Alkatetzaren 2024ko ekainaren 26ko 311 Dekretua, zeinaren bidez CARLOS ALBERTO ITURRIOZ MALAINA lehen alkateorde eta MAITE COBO BARCALA bigarren alkateorde izendatu ziren.

Aztertu da 2024ko irailaren 20ko Osoko Bilkuraren erabakia, zeinaren bidez CARLOS ALBERTO ITURRIOZ MALAINA jaunak zinegotzi karguari uko egin ziola jakin zen. Beharrezkoa izan zen lehen alkateorde berria izendatzea.

Aintzat hartu da Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen Legearen (apirilaren 2ko 7/1985) 23.3 artikuluan xedatutakoa. Horren arabera, alkateordeak dira alkatearen ordezkari hura ez dagoenean edo gaixo dagoenean.

Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 21.2 artikulua eta Toki Udalbatzaren Antolaketa, Funtzionamendu eta Araubide Juridikoaren Erregelamenduaren 46.1 artikulua ematen dizkidaten eskumenak baliatuta, honako hau **XEDATU DUT:**

LEHENENGOA. IÑIGO GRACIANTEPARALUCETA LOPEZ DE IPIÑA zinegotzi jauna Zigoitiko Udaleko lehen alkateorde eta MAITE COBO BARCALA andrea bigarren alkateorde izendatzea.

Izendatutako alkateordeei dagokie, beren kargua onartu ondoren, zeregin guztietan eta izendapen ordenaren arabera, alkatea ordezkatzeko bera ez dagoenean, gaixo dagoenean edota bere eskumenak gauzatzeko gai ez denean.

BIGARRENA. Erabaki hau izendatutako zinegotziei zuzenean jakinaraztea. Isilbidez onartutzat joko da, berariaz kontrakoa adierazi ezean.

HIRUGARRENA. Erabaki hau ALHAOra bidaltzea, argitara dadin, eta, era berean, udaletxeko iragarki-taulan argitaratzea. Nolanahi ere, erabakia eraginkorra izango da alkateak sinatu eta hurrengo egunetik aurrera.

LAUGARRENA. Erabaki honen berri ematea Udalaren Udalbatza Osoari egiten duen lehenengo bilkuran.

395etik 447ra bitarteko dekretuen kontu ematea

2024-0395 DEKRETUA [Alkatetzaren Ebazpena, arma izateko lizentzia emateko]

2024-0396 DEKRETUA [Alkatetzaren Ebazpena, "Los muertimer" filmaren filmaketarako aurkeztutako bermea itzultzea onesteko]

2024-0397 DEKRETUA [Alkatetzaren Ebazpena, T/2024/20 kontabilitate-zerrendako ordainketak onesteko]

2024-0398 DEKRETUA [Alkatetzaren Ebazpena, Gorbeialdeko Kuadrillaren alde hondakinak biltzeko eta konpostaje-eremuak mantentzeko zerbitzuaren gastuaren % 50eko gastua xedatzeko eta aurrerapen-agindua emateko]





2024-0399 DEKRETUA [Alkatetzaren Ebazpena, desgaitasuna duen pertsonari aparkatzeko txartela emateko]

2024-0400 DEKRETUA [Alkatetzaren Ebazpena, Etxabarri Ibiñako 6. poligonoko 1152. partzelan dagoen etxebizitzaren estalkian panel fotovoltaikoak jartzeko obra txikiaren lizentzia emateko]

2024-0401 DEKRETUA [Alkatetzaren Ebazpena, desgaitasuna duen pertsonari aparkatzeko txartela emateko]

2024-0402 DEKRETUA [Alkatetzaren Ebazpena, Etxabarri Ibiñako Gorbeia Merkataritza Parkeko 6. poligonoko 1057. lursailean dagoen E5 eraikineko fatxadak konpontzeko obra txikia legezatzeko lizentzia emateko]

2024-0403 DEKRETUA [Alkatetzaren Ebazpena, Manurgako 2. poligonoko 819. partzelan dagoen eskola zaharreko komunak konpontzeko obra txikiko lizentzia emateko]

2024-0404 DEKRETUA [Alkatetzaren Ebazpena, Bengolarra eraikina zaharberritzeko eta handitzeko obraren 28. ziurtagiria onesteko]

2024-0405 DEKRETUA [Deialdiaren dekretua]

2024-0406 DEKRETUA [Alkatetzaren Ebazpena, biztanleen erroldan behar ez bezala inskribatzeagatik ofizioz baja emateko]

2024-0407 DEKRETUA [Alkatetzaren Ebazpena, T/2024/21 ordainketak onesteko]

2024-0408 [Alkatetzaren Ebazpena, Ondategin eskola-kiroleko txirrindularitza-jokoen proba egiteko baimenari buruzkoa]

2024-0409 DEKRETUA [Deialdiaren dekretua]

2024-0410 DEKRETUA [Alkatetzaren Ebazpena, arma izateko lizentzia emateko]

2024-0411 DEKRETUA [Alkatetzaren Ebazpena, arma izateko lizentzia emateko]

2024-0412 DEKRETUA [Alkatetzaren Ebazpena, Muruatik Gorbeako harrobi zaharretara doan errepidea egokitze obraren kontratua (3. fasea eta 4. fasea) adjudikatze]

2024-0413 DEKRETUA [Alkatetzaren Ebazpena, berrikusteko errekurso berezia (barrutia) ez onartzearen aurkako berraztertze-errekurtoa ez onartzekoa]

2024-0414 DEKRETUA [Alkatetzaren Ebazpena, biztanleen erroldan behar ez bezala inskribatzeagatik ofizioz baja emateari hasiera emateko]

2024-0415 DEKRETUA [Alkatetzaren Ebazpena, 1. poligonoko 683. partzela besterentzeko aurkeztutako eskaintzak sailkatze]

2024-0416 DEKRETUA [Alkatetzaren Ebazpena, Bengolarra eraikina berritzeko eta zabaltzeko obraren 29. ziurtagiria onesteko]

2024-0417 DEKRETUA [Alkatetzaren Ebazpena, 2024ko jasangarritasun energetikoko jardueretarako dirulaguntzen eskaerak onesteko]

2024-0418 DEKRETUA [Alkatetzaren Ebazpena, 2023 urteko jabari publikoaren erabilera pribatiboagatik edo aprobetxamendu bereziagatik tasaren likidazioa onesteko]

2024-0419 DEKRETUA [Alkatetzaren Ebazpena, ASOCIACIÓN DOMINIZUBI MUSIKA ELKARTEAri 2024-2025 ikasturterako dirulaguntza izenduna eta aurrerakina emateko]

2024-0420 DEKRETUA [Alkatetzaren Ebazpena, 2/2024 kreditu gehigarriari buruzko]





espedientea onesteko]

2024-0421 DEKRETUA [Alkatetzaren Ebazpena, 2024ko iraileko nominak ordaintzea onesteko]

2024-0422 DEKRETUA [Alkatetzaren Ebazpena, 7/2024 kreditu gehigarriari buruzko espedientea onesteko]

2024-0423 DEKRETUA [Alkatetzaren Ebazpena, Murua udalerriko AMEZUA IBAIAREN ibilguaren eskuinaldeko ezpondan egindako harri-lubetazko horma aldatzeko obra txikiko lizentzia emateko]

2024-0424 DEKRETUA [Alkatetzaren Ebazpena, Larrinoako Kiroi Elkarteari Larrinoako 3. poligonoko 423. partzelaren errentamendua zuzenean adjudikatzeko]

2024-0425 DEKRETUA [Alkatetzaren Ebazpena, Apodakako Lugorri 3ko ondasun higiezia besterentzeko]

2024-0426 DEKRETUA [Alkatetzaren Ebazpena, San Esteban baseliza birgaitzeko lan arkeologikoei buruzko monografikoa idazteko zerbitzuaren kontratu txikia adjudikatzeko]

2024-0427 DEKRETUA [Alkatetzaren Ebazpena, San Esteban baselizaren esku-hartze didaktiko-informatiboa egiteko zerbitzuen kontratu txikia adjudikatzeko]

2024-0428 DEKRETUA [Ebazpena, San Esteban baselizarako sarbidearen irisgarritasuna hobetzeko obraren kontratu txikia adjudikatzeko]

2024-0429 DEKRETUA [Alkatetzaren Ebazpena, Muruako 3. poligonoko 147. partzelan familia bakarreko etxebizitza berreraikitze obrak lehenengoz okupatzeko lizentzia emateko]

2024-0430 DEKRETUA [Alkatetzaren Ebazpena, Berrikanoko 6. poligonoko 1308. partzelan urrututako hirigintza-legezketasunagatiko hertsapen-isuna jartzeko]

2024-0431 DEKRETUA [Alkatetzaren Ebazpena, Etxabarri Ibiñako 6. poligonoko 660. partzelan dagoen etxebizitzaren bainuontziaren ordeztutako dutxaontzia jartzeko obra txikiaren lizentzia emateko]

2024-0432 DEKRETUA [Alkatetzaren Ebazpena, beste administrazio publiko batzuetan zerbitzuak emateko borondatezko eszedentzia onesteko]

2024-0433 DEKRETUA [Alkatetzaren Ebazpena, Ondategiko 2. poligonoko 288. partzelan egindako jarduketa klandestinoaren aurrean dokumentazioa zabaltzeko 15 eguneko epe berri eta luzaezina emateko]

2024-0434 DEKRETUA [Alkatetzaren Ebazpena, Larrinoako 6. poligonoko 6. partzelan urrututako legezketasuna ez leheneratzeagatik hertsapen-isunak jartzeko]

2024-0435 DEKRETUA [Alkatetzaren Ebazpena, jendea artatzeko administrari laguntzailearen lanpostua betetzeko bitarteko funtzionarioa izendatzeko]

2024-0436 DEKRETUA [Alkatetzaren Ebazpena, Txabola Nagusitik putzuetara bitarteko abeltzaintza-itxitura konpontzeko eta Lizarandan abereak maneiatzeko eremuan belar-sastrakak kentzeko zerbitzuen kontratua txikia adjudikatzeko]

2024-0437 DEKRETUA [Alkatetzaren Ebazpena, Ondategi udalerriko 2. poligonoko 912. partzela garbitzeko errekerimendua egiteko espedientea artxibatzeko]

2024-0438 DEKRETUA [Alkatetzaren Ebazpena, Gopegiko 6. poligonoko 431. partzelako egikaritze-proiektuaren aldaketa onesteko eta obren amaierako dokumentazioa aurkezteko eskatzeko]





2024-0439 DEKRETUA [Alkatetzaren Ebazpena, udaletxearen birgaikuntza segurtasuna eta osasuna zuzendu eta koordinatzeko kontraturako aurkeztutako eskaintzak sailkatzeko]

2024-0440 DEKRETUA [Alkatetzaren Ebazpena, Etxebarri Ibiñako Gorbeiko merkataritza-parkeko 6. poligonoko 1057. partzelako E2 eraikinean Gorbeia Padel Klubaren kirol-jarduera zabaltzeko alde zuzeneko jakinarazpena eskatzeko]

2024-0441 DEKRETUA [Alkatetzaren Ebazpena, Etxebarri Ibiñako SAUI-3 urbanizatzeko 2023ko apirilaren 6an jarritako abala (kostuaren % 7koa) itzultzeko]

2024-0442 DEKRETUA [Alkatetzaren Ebazpena, Etxebarri Ibiñako SAUI-3ren hirigintza-jarduketarako programarako (HJP) 2014ko apirilaren 23an jarritako abala (% 1koa) itzultzeko]

2024-0443 DEKRETUA [Alkatetzaren Ebazpena, Ondategiko 2. poligonoko 775. partzelaren lagapen-eremua berriro mugatzeko planoak onesteko]

2024-0444 DEKRETUA [Alkatetzaren Ebazpena, Larrinoako 3. poligonoko 11. partzelari buruzko hirigintza-txostena helarazteko]

2024-0445 DEKRETUA [Alkatetzaren Ebazpena, Gorostizako 4. poligonoko 216. eta 151. partzei buruzko hirigintza-txostena helarazteko]

2024-0446 DEKRETUA [Alkatetzaren Ebazpena, Manurgako aireko linearen euskarria aldatzeko obra-lizentzia ukatzeko]

2024-0447 DEKRETUA [Alkatetzaren Ebazpena, lehenengoz okupatzeko lizentziaren eskaera zuzentzeko eskatzeko]

Alkatetzaren txostenak

UDAL MUGIKORTASUNARI BURUZKO MOZIOA:

Alkate jaunak azaldu du Gorbeia Eskolako gurasoen elkarteak mozio bat aurkeztu duela 2024ko irailaren 29an, udal-mugikortasuna hobetzeko helburuarekin. Adierazi du proposamenaren Udalak hiri-mugikortasuneko plan bat idazteko eskatzen dutela, eta, horri dagokionez, ingurumeneko teknikariak proposatu du gaiaren interesa duten pertsonen osatutako lantalde bat sortzea, egungo egoeraren diagnostikoa eta hobekuntza-proposamenak idazteko. Idatzia Udalbatzak ebatzi beharko du eta Arabako Foru Aldundiari helaraziko zaio. Gaineratu du mozioaren sustatzaileekin bilduko dela estrategia definitzeko. Horrez gain, adierazi du azaroko Batzordearen eta Osoko Bilkuraren gai-zerrendan sartuko duela elkartearen ekimena.

ETXEBIZITZEI BURUZKO ORDENANTZA:

Alkate jaunak esan du azkenean kanpoko enpresa bat kontratatuko dutela, tasatutako udal-etxebizitzetarako buruzko ordenantza eta medikuaren etxeko etxebizitzan gazteei logelak alokairua adjudikatzeko oinarriak idatz ditzan, izapideak arintzeko.

INFORMAZIO BATZORDEAREN ETA UDALBATZAREN BILKURAK:

Alkate jaunak proposatu du azararen 18an eta 25ean egitea Informazio Batzordearen eta Udalbatzaren ohiko bilkurak, gaiak hobeto prestatu ahal izateko.





C) ESKAERAK ETA GALDERAK

Eskaerak eta galderak

ETXEBIZITZEI BURUZKO ORDENANTZA:

Mikel Isasmendi Txurruka zinegotziak, EHU BILDU bere taldearen izenean, honako testu hau irakurri du:

“Urtebete baino gehiago igaro da medikuaren eraikineko etxebizitzari buruz galdetzen hasi ginenetik. Aurrekontuak onesteko, aurrekontu-itun bat egin genuen eta elkarrekin lan egiteko konpromisoa hartu genuen gure udalerriko etxebizitzaren egoera epe laburrean hobetze aldera. Zenbait ideia proposatu genituen; co housing-a, alokairu partekatua... azken finean, zigoitiarrek, bereziki gazteek, bizi duten arazo honi irtenbide bat ematen saiatzeko modu desberdinak. Inkesta bat egin genuen gazteek etxebizitzaren inguruan bizi duten errealtatea ezagutzeko, medikuaren etxebizitzari buruzko aurreko agiriaren gainean egin genuen lan, Bengolarra esparruko etxebizitzan egin zitezkeen aukerak aztertu genituen, eta Muruan gizarte-laguntzako etxebizitzan etorkizuneko proiektuei buruz ere hitz egin genuen.

Osoko bilkura bakoitzean (urtebete osoan) medikuaren etxebizitzaren egoeraz galdetu genuen, etxebizitzaren arazoari aurre egiteko daukagun beste baliabide bat dela uste baitugu. Erradiadoreak ez baziren, sukaldea zen, eta sukaldea ez bazen, margotu egin behar zen. Hori guztia ahaztu gabe gai horri buruz galdetu genuen azken aldietan barreak eta errespetu faltak antzeman genituela (dirudienez zenbait pertsonarentzat gai hau ez da guri iruditzen zaigun bezain serioa).

Eta orain, urtebete hutsik egon ondoren, Ekain aholkularitza juridikoari eskuordetuko zaio agiriak eta ordenantzak idaztea. Ez zaigu gaizki iruditzen, baina urtebete behar izan da gizarte-laguntzako etxebizitza bat margotzeko eta txukuntzeko? Horrek guztiak atzeratu egingo du, berriro ere, maizter berriak etxebizitzara sartzea. Amaitzeko, joan den egunean esan genuen bezala, azpimarratu nahi dugu ahaleginak gure herriaren beharretara egokitzen ez diren beste proiektu faraooniko batzuetara bideratzen ari direla. Lehentasunen kontua. Izan ere, gure ustez, gauza txikiak, baina, aldi berean, handiagoak, zabartzen ari dira”.

Alkate jaunak erantzun du 2024ko lehenengo seihilekoan etxebizitzaren egoeraren balorazioa egiten aritu direla. Gazteei inkesta bidali zaie etxebizitza-premiari buruz galdetzeko. Aldi berean, etxebizitza egokitzeko lanak egiten aritu dira. Azpimarratu du bere gobernuarentzat etxebizitza gai garrantzitsua dela, eta ahaleginak bideratzen ari direla politika publiko horretara, eta nabarmendu du Muruan gizarte-laguntzako etxebizitzak sustatzen ari direla. Galdetu du ea zer egin duen EH BILDUK udalerrri hau etxebizitzaren arloan gobernatu duten zortzi urteetan. Azaldu du izapideak luzatzen ari direla, baina horretan lanean ari direla azpimarratu du.

Alkate jaunak gaineratu du 235 gutun bidali zaizkiela Zigoitiko gazteei, eta erroldatuta dauden 30 lagun erantzunak jaso direla. Herritarren erantzun eskasa izan arren, adierazi du ez dagoela zalantzarik jorratu beharreko etxebizitza-premia bat dagoela, horretan lanean ari direla, eta espero duela hilabete batzuk barru osasun-zentroaren ondoan dagoen etxebizitza eskaini ahal izango dutela.

BENGOLARRA BIRGAITZEKO OBRAK:

Xabier Nafarrate Cadiñanos zinegotziak Bengolarra birgaitzeko obrari buruz galdetu du, amaierako data iraungi egin baita. Alkate jaunak erantzun du espero duela urte amaierarako amaitzea.

Era berean, Bengolarra eraikinerako sarbideen kontrol-sistemari buruz galdetu du.





Idazkariak erantzun du baztertu egin dela biometrikoen bidezko sarrera-sistema bat ezartzea; izan ere, datu pertsonal horiek arrisku handiko tratamendua behar dute eta egokitasun-, beharizan- eta proportzionaltasun-analisi bat gainditu ondoren baino ezin da erabili. Azaldu du, sistema hori erabiltzeko, herritarrentzat hain gaitza ez den beste modu alternatiborik ez dagoela egiaztatu beharko litzatekeela, eta hori, udaleko talde teknikoaren iritziz, ezin da justifikatu gaur egun.

LANPOSTUEN BALORAZIOA:

Ainhoa Fernández Domínguez zinegotziak lanpostuen balorazioaren izapideen egoeraz galdetu du. Idazkariak erantzun du oraindik ez duela jaso teknikari arduradunaren proposamena, baina, azaldu du, proposamena Udaleko langileen eta sindikatuen aurrean 2024ko azaroaren amaieran aurkeztea aurreikusi dutela. Esan du aurretik gainerako zinegotziekin adostuko dela.

PARTZELA BIDEA KONPONTZEA:

Ainhoa Fernández Domínguez zinegotziak Eribetik Buruagara doan partzela-bidearen egoera txarrari buruz galdetu du. Alkate jaunak erantzun du bide horiek ez direla udal-titulartasunekoak eta saiatzan ari dela konponketa-lanak eta obren finantzazioa Arabako Foru Aldundiarekin eta administrazio batzarrekin koordinatzen. Esan du Eribeko Administrazio Batzarrak obra txikietarako dirulaguntza eskatu duela horretarako, eta Buruagako Administrazio Batzarrak Udalari eta foru-erakundeari obra txikietarako dirulaguntza eskatuko diela.

Idazkaritzaren eginbidea:

2024ko azaroaren 25eko ohiko osoko bilkuran, alkate jaunak galdetu du Udalbatzako kideren batek oharririk egin nahi dion 2024ko urriaren 28ko aktari. Akta deialdiarekin batera banatu zen.

Inork ez du oharririk egin, eta, Toki Erakundeen Antolaketa, Funtzionamendu eta Araubide Juridikoaren Erregelamendua onartzen duen azaroaren 28ko 2568/1986 Errege Dekretuak 91.1 artikuluan xedatutakoarekin bat etorritz, akta onetsi da.

ELEKTRONIKOKI SINATUTAKO DOKUMENTUA

